



Hizkuntza Eskubideen egoera 2022



www.behatokia.eus



[@behatokia](https://twitter.com/behatokia)



[@HizkuntzEskubideenBehatokia](https://www.facebook.com/HizkuntzEskubideenBehatokia)



[@behatokia](https://www.instagram.com/behatokia)



HIZKUNTZ
ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

Izenburua: HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA 2022

Mota: urteko txostena

Egilea: HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Argitaratze data: 2023ko martxo

Argitalpen digitala: www.behatokia.eus webgunean eskuragarri



Oharra: argitalpen honetako eduki guztiak Creative Commons erakundearen Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC) lizentziaren menpekoak dira.

HITZAURREA

URTEKO BERRIAK

SARRERA

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA 2022AN

Praktika onak
Determinazioz eragin

DATUAK

Datu orokorrak
Datuak arloka

ARLOKAKO AZTERKETA

- 01 Estatuetakako administrazioak
- 02 Administrazio jarduera orokorrak
- 03 Osasungintza
- 04 Segurtasuna eta Herrizaingoa
- 05 Hezkuntza
- 06 Herriko etxeak eta udalak
- 07 Kultura, aisia eta kirola
- 08 Eremu sozioekonomikoa

HITZAURREA

Hizkuntz Eskubideen Behatokia sortu zenean desagertuko zen eguna genuen helburu eta amets. Hau da, halako tresna ohartarazle eta zuzentzailerik beharko ez dugun eguna: euskaraz ardazten garen jendeok herritartasuna berdintasunez biziko duguna, euskararen normalizazioa iritsitakoa; finean, gizarte justu, berdinzaleago eta kohesionatu baterantza urrats handia egindako eguna.

20 urtetik gorako ibilbidea eginga du Behatokiak, eta, tamalez, oraindik urrun ikusten da egun hori. Are, 2022ak ekarri duenari begira jarri eta zoritzarreko sentipena da aurrera baino atzera egin ote dugun. Izan ere, herritarrek eta egunerokoak jasaten diren hizkuntz eskubideen urraketak ez dira atertu –hain zuzen ere, Euskararen Telefonotik bideratzen diren eskubide-hauste horien lagin bat jasotzen du txosten honek-. Baina horiez gaindi, euskararen biziberritzea xede duten politikak eraisteko asmoa duen oldarraldi judizial baten lekuko izaten ari gara.

2022koak ditugu Irungo, Laudioko eta Orkoiengo epaiak. 2019an baliogabetutako Nafarroako Euskararen Dekretuaren ondorioak 2022an ere nabarmen pairatu dituzte euskaraz ardazten diren nafarrek.

Administrazio erakunde, zerbitzu eta araubide desberdinei erantzunez emandako epaiak dira, baina guztiak lotzen ditu amankomuneko hari batek: euskararen normalizazio prozesuan aurrera egiteko eta euskaldunek herritartasuna berdintasunean eta eskubide berez bizitzeko neurriak eraisten dituzte. Beste era batera esanda, epaileak de facto ari dira hizkuntz-politika egiten, botere legegileari bere lekua ebasita, eta, azken buruan, herritarren borondateari gaina hartuta.

Oldarraldi judizial hau herritarren hizkuntz eskubideei eragiten ari zaien kaltearen egiazko tamaina neurtzea zaila da. Izan ere, lehen geruza batean epai zehatz bakoitzaren kaltea dago: Irun, Laudio, Orkoiengo herritarrek biziko dutena. Bigarren geruza batean, epai horiek sortzen ari diren jurisprudentiaren kaltea. Eta hirugarren batean, oldarraldiaren mamuak eragindakoa, dagoeneko hainbat baitira auzibidearen mehatxuaren beldurrez lan eskaintza publikoetan hizkuntz eskakizunak zehazterakoan abiaburutik hartutako neurri murriztaileak. Eta murrizketa horiek herritarren eskubide urraketa bihurtzen dira gero.

Hego Euskal Herrian oldarraldi judizialaren forma hartu du, beste beste, euskaraz bizitzea xede duten herritarren kontrako tresneriak. Ipar Euskal Herrian, berriz,

hezkuntza arloan tematu da bereziki euskararen biziberritzearen kontrako oldarraldia. Sare publikoan euskarazko irakaskuntza jaso nahi dutenek oztopoak atzeman dituzte bata bestearen atzetik. Ikastoletako gazteek, berriz, beren etorkizun akademikoa erabakitze hain erabakigarria den Baxoa azterketa beren hizkuntzan egitea galarazia dute. Oinarritzko eskubideak auzitan, batean zein bestean.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak egunero-egunero herritarrekin duen harremanari esker ederki daki askotan oso modu abstraktuan irudikatzen diren euskararen biziberritzaren kontrako erasoaldi hauek denek, gero eragin zehatz eta ukigarria dute la milaka jenderen eguneroko bizitzetan. Milaka herritarren egunerokoan gorpuzten eta itsasten direla. Eta eskubide urraketa horietako gehienetan jatorrian euskararen eta euskaraz ardazten diren herritarren aldeko hizkuntz politika ausartagoen falta dagoela. Jauzia egiteko garaia da.



Idurre Eskisabel Larrañaga
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehendakaria

URTEKO BERRIAK

Behatokiaren helegitea, Osakidetzako Logopeden lan-deialdiari



URTARRILA

Behatokiaren 2021eko Urteko Txostenaren aurkezpena




MARTXOA

Errenta aitortpena euskaraz egitea sustatzeko kanpaina




MAIATZA

Azterketak euskaraz egiteko eskubidearen alde Frantziako Akademia Ikuskaritzak Baionan duen egoitza okupatu zuten Seaskako guraso, irakasle eta ikasleei babesa



UZTAILA

IALC nazioarteko jardunaldietan Euskal Herriko hizkuntza eskubideen berri ematea




IRAILA

Lan-deialdi publikoetako probak gazteleraz egitera behartuak



AZAROA

OTSAILA




Nafarroako administrazio publikoko lanpostuetarako merezimenduen balorazioa arautzen duen dekretu-zirriborroaren aurkezpena

APIRILA



Dekretu berriaren harira, Nafarroako herritarrek aurkeztutako 1.200 eskaeran erregistroa Gobernuaren egoitzan

EKAINA



Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua arautuko duen legearen berrikusketa Legebiltzarrean

ABUZTUA



'Udan Adi!' sentsibilizazio eta aktibazio kanpaina

URRIA



Larragako eskolan D eredu irekitzeko eskaera

ABENDUA



'Udalak nirekin euskaraz' kanpaina, Iruñean

SARRERA


Hizkuntza Eskubideen Behatokiak, 20 urte baino gehiago daramatza Euskal Herriko hainbat arlo eta eremutan hizkuntza eskubideen egoera aztertzen. Horretarako, herritarren eskubideen babes eta defentsan oinarritzen du bere eguneroko jarduna arlo publikoan zein pribatuan.

lido nagusien artean, Euskararen Telefonoa doako zerbitzuaren bidez, herritarrek helarazitako keza, zoriontze zein kontsultak bideratzen ditu, baina zerbitzu hori gure jardueraren muina izanik ere, beste hainbat lan-lerro jorratzen ditu:

- Herritarrekin eragite ekimen bereziak antolatu, eta hizkuntza eskubideen arloan babesa eskaini.
- Hizkuntza eskubideen egoeraren azterketa eta txostenak egin (orokorra zein arlo edo eremu zehatzetako) bai eta dagozkien erakundeei aurkeztu ere aldaketak eragiteko asmoz.
- Hizkuntza eskubideen egoeraren berri eman nazioartean.
- Hizkuntza eskubideen edukiak zabaltzeko jendartearen norbanako zein eragileen kontzientziazioan sakontzeko.
- Aldez aurreko prebentzio jarduna garatu eremu batzuetan euskararen presentzia soziala indartzeko.
- Eragile sozialekin lankidetzan egoeren salaketa eta eragiteko ekimen xeheak aurrera eraman.
- Erakunde publikoekin harremanak garatu hizkuntza eskubideen egoeraz hausnartu eta aldaketak eragiteko.

Hizkuntza eskubideen babesa indarrean dauden ordenamendu juridikotik harago egiten du Behatokiak, ondorengoetan oinarrituz (Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 1996 Bartzelona):

- Hizkuntza eskubideak indibidualak eta kolektiboak dira.
- Hizkuntza komunitate historikoaren lurralde eremua, komunitatea bizi den eremu geografikoa ez ezik, hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzionala ere bada.



HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA 2022AN

Urtero egiten dugun hizkuntza eskubideen egoerari buruzko azterketa biltzen duen honako txosten honek urte osoan zehar “Euskararen Telefonoan” jasotako intzidentziak izaten ditu oinarri. Hortaz, azterketa honetarako lagin bat baino ez da erabiltzen. Izan ere, egunero hizkuntza eskubideekiko izaten diren gorabeherak jendartean ditugun arazoak adibideak dira, eta urtero aldatu daitezkeen arren, azken urteetan errepikatutako intzidentziak zenbait hutsuneren erradiografia egin eta aldaketen beharrekiko proposamenak planteatzeko baliabideak daitezke.

Behatokitik egiten diren irakurketa, salaketa eta hausnarketak herritarren kexa edo protesta hutsa bezala kalifikatuzetik harago, espazio eta zerbitzu publiko eta pribatuetan gizarte berdinezale eta justuago bat eraikitzeko baliagarriak izan behar dira.

Erakunde publikoetan zein enpresa eta elkarte pribatuetan herritar, erabiltzaile edo kontsumitzaile bezala ditugun hizkuntza eskubideak kontuan hartzea erantzukizun sozialaren eta zerbitzuak jasotzen dituztenen arteko berdintasunaren alde egitea da.

Txosten honetan beraz, adibide garrantzitsuenen bidez, arloz arloko irakurketa orokor bat egiten da, ondorengo atalak nabarmenduz:

- Osasungintza.
- Hezkuntza.
- Administrazio orokorra.
- Eremu sozioekonomikoa.
- Aisia, kultura eta kirola.
- Estatuko Administrazioa.
- Herriko etxeak eta udalak.
- Herrizaingoa eta segurtasuna.

2022an izandako intzidentzia gehienek administrazio publikoan ematen diren zerbitzuekin harreman zuzena dute (%65 inguru), izan ere, hizkuntza eskubideak bermatzeari begira, hartu gabeko neurriek edo erdizka hartutakoek eragin zuzena dute herritarrek jasotzen duten zerbitzuan eta egungo egoera soziolinguistikoa zein etorkizunekoan.

Adibidez, 2022ko maiatzean Eusko Jaurlaritzak argitaratutako deialdietan, 1.272 lanpostutatik %11,55ean ez zen nahitaezkoa izan euskararen ezagutza, eta beste hainbestetan gutxieneko ezagutzak besterik ez ziren eskatu (% 17,53an 1. HE eta % 67,37an 2. HE). Lanpostu guztien %5,82an soilik ezarri zen 3. hizkuntza eskakizuna.

Estatuetako administrazioek euskara eta euskal hiztunekiko duten aitortza eza eta gutxiespenak ere herritarren egunerokoan euskaraz berdintasunean ikasi eta erabili ahal izateko oztopo eta ezintasun nabarmenak markatzen dituzte.

Ipar Euskal Herrian nabarmentzekoa da euskararen irakaskuntza sare publikora ez zabaltzeko erabakia. Horrekin batera, ikastolen sarean euskaraz ikasi, baina azterketak euskaraz ezin egiteko erabaki politikoek erabat mugatzen dute euskaraz bizitzeko eskubidea eta ahalmena. Egoera bidegabe horrek hurrengo urteetan Ipar Euskal Herrian hizkuntza eskubideen aldarrikapenak izan dezaketen noranzkoa marka dezake.

Bestalde, Nafarroako Foru Erkidegoan zein EAEn, 2022an kezka zabaldutako administrazio publikoek hartutako neurriak epaitegiek baliogabetu izanarekin (Nafarroan jada aurretik zetozen egoerak errepikatuz). Izan ere, hainbat zerbitzu publikotan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari begira hizkuntza politikaren baitan hartutako neurrien baliogabetzeak etorkizuneko zerbitzu horien erabiltzaileen eskubideak baldintzatu edo mugatuko ditu. Hona hemen 2022an baliogabetutako zenbait neurri:

- Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen lan-poltsan B2 ezagutzaren nahitaezotasuna.
- Laudioko Udalean lanpostu bat betetzeko langile bati hizkuntza eskakizuna exigitzea baliogabetu izana.
- Orkoiengo Udaleko 9 lanpostutako hizkuntza eskakizunak baliogabetu izana.

Kontuan izan behar da, gainera, Nafarroako Euskararen Dekretua 2019an baliogabetu izanak 2022an ere izan zituela ondorioak. Aurten, euskara merezimendu gisa ere ez da kontuan hartu ehunka lanpostu publikotan, eta, ondorioz, zabaldu dute hurrengo urteetan zerbitzu horiek euskaraz jasotzeko ezintasuna.



Euskararen telefonoaren bidez jasotako intzidentzia bakoitzaren atzean hizkuntzarekiko hainbat faktore eta erabaki daude, baina gehienetan euskararen aitortza eza edo gutxiespenari lotutakoak izaten dira. Beste hainbatean hizkuntza hegemonikoen nagusitasunaren ondorio dira. Kontuan izan behar da, gainera, intzidentzia askotan azaleko urraketak dauden arren, beste askotan euskaraz bizi nahi duten pertsonetako ezkutuko bazterkeria eta gutxiespen egoerak ere badaudela, hizkuntza horretan bizi ahal izateko bitarteko gutxiago ezarri edo eskaintza gutxiago eginez, adibidez.



2022an ere herritarren determinazioz eta Behatokiaren bidez eragitea lortu dela goraipatu nahiko genuke honako txosten honetan. Aldaketak eragiteko, kontzientziazioaz gaindi, herri gogoaz, determinazioa eta gizarteko eragile, erakunde eta norbanako guztion inplikazio eta erantzukizuna behar-beharrezkoak dira. Hizkuntza eskubideak modu transbertsean lantzea herri kohesionatua, berdinzalea eta pertsonen zaintzan oinarritutakoa eraikitzeko bidean ezinbestekoa da.



Praktika onak

Txosten honetan, 2022. urtean herritarrek helarazitako zoriontzeak, keak baino askoz gutxiago izan diren arren, euskarazko zerbitzuak edo ondasunak kontsumitu ahal izateak duen garrantzia baloreen jarri nahiko genuke. Praktika hauek eredu-garri dira jendartean eta enpresa/erakunde pribatu askok hizkuntza eskubideen aitorza beraien marka eta izaeraren parte bilakatu dute, beti ere kalitatea eta gizarte berdinzale baten norantz.

Hona hemen adibide batzuk:

7-2022 DOSIERRA

“ze ona Arrasateko jostailu denda honen ekimena! Euren dendan saltzen diren mahai-joko guztien jarraibideak euskaraz ere ematen dituzte, horietako hainbat eurek berek itzuli behar badituzte ere. Nire eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiet”

118-2022 DOSIERRA

“Paris365 ekimenak iragarri duenez, bere sareak elebidunak izatera pasako dira hemendik aurrera, euskaraz eta gazteleraz. Zoriondu egin nahi ditut emandako urratsagatik. Eskerrik asko eta segi urratsak ematen!”

165-2022 DOSIERRA

“Etxauriko Sarbil jatetxea zoriondu nahi dut, jaten bapo emateaz gain, zerbitzua euskaraz emateagatik!!! Eskerrik asko!!!”

574-2022 dosierra

“Euskarazko arreta eskaintzen dute eta, gainera, webgunea (<http://arrate.eus>) euskaraz daukate. Iradokizun gisa, animatuko nituzke idatzizko agirietan ere euskara erabiltzera, hala nola, aurrekontuetan edo fakturetan.”

577-2022 dosierra

“Adigrafiken euskara eta euskaldunok aintzat hartzen gaituzte eta, horregatik, honen bidez zoriondu nahi ditut. Arreta euskaraz eskaintzen dute, webgunea euskaraz dute eta idatziz ere euskara erabiltzen dute (erantzun automatikoetan ere euskarazko erantzuna bidaltzen dute) eta, gainera, euskara lehenesten dute. Bejondeiela.

966-2022 dosierra

“Kärcher etxearen iragarkia ikusi dut atzotik hona laugarren aldiz, euskaraz, ETB2n. Bejondeiola, hemengo establezimendu, negozio eta enpresa gehien-gehienek baino askozaz tratu hobea (horretarako ez da asko behar...) eman digute dagoeneko euskaldun kontsumitzaileoi. Zoriontze mezua helarazi diezaiozuen, mesedez.”



Determinazioz eragin


2022an ere herritarrek Euskararen Telefonoa erabiltzen jarraitzea balorean jarri nahiko genuke beste behin. Herritarrek maizegi etsipen, amorrú edo neke sentsazioak transmititzen dituzten arren, horrek ez du beraien euskaraz bizitzeko determinazioa zapuzten eta determinazio horri esker, ekinez eta jendarteko eragile ezberdinak inplikatuaz, aldaketak ere eragiten dira. Aldaketa horiek askotan xeheak izan arren, erakundeek eta jendarteak orohar hizkuntza eskubideekiko duen aitortza eta garrantzian eragitea lortzen dute eta horrek, lotura estua du herritarren ahalduntzean zein hizkuntzaren normalizazio prozesuan.

Araudi ezberdinek euskararen presentzia edo euskarazko zerbitzuekiko betebeharrak ezartzen dituzten kasuetan ere, herritarrak arau horien betetzea eskatzen ibili behar izaten dira, baina hortik harago, aldaketak eskatzen dituzten herritarrak berdintasunarekiko aitortza, gertutasuna eta kalitatezko zerbitzuak ere eskatzen ari dira.

Aldaketak eragitea, beraz, aitortza eta normalizazioaren espazioak irabaztea da eta, beste behin, oztopen aurrean irmotasunez jokatu eta jarrera aktiboa izan duten herritarrei esker ona azaldu nahiko genieke. Berauei esker, hainbat erakunde eta enpresek aldaketak egin dituzte, euskarazko eskaintza bermatu, dokumentazio eta baliabide ezberdinak euskaratu, euskarazko zerbitzua eskaintzeko neurriak hartu...

LEHEN

ORAIN



LEHEN

ORAIN



LEHEN





ORAIN



LEHEN



ORAIN




DATU OROKORRAK

2022ko DATUAK

ERREGISTRO MOTA	KOPURUA
Kexak	976
Zoriontzeak / Esker onak	54
Iradokizunak	30
Kontsultak	9
Izaera gabeko kexak	2
GUZTIRA	1.071

KASU KOPURUAREN BILAKAERA (2002-2022)



DATUAK ARLOKA

SEKTORE SOZIOEKONOMIKOKO 2022ko DATUAK

EREMUA	KOPURUA
Aisialdia, Kultura Kirola	63
Enplegua/ekonomia	3
Eragileak Alderdi politikoak/sindikatuak/mundu asoziatiboa/erlijioa/besterik	26
Interes orokorreko zerbitzuak Energia hornitzaileak/garraioa/ telekomunikazioa	52
Finantza entitateak, aseguru etxeak	25
Hedabideak	11
Hezkuntza	3
Merkataritza gune handiak/kateak	84
Osasun zerbitzuak	11
Ostalaritza/merkataritza txikia/elikadura	51
Profesionalak eta zerbitzuak	20
OROTARA	349

SEKTORE PUBLIKOKO 2022ko DATUAK

ERAKUNDEA	KOPURUA
Espainiako Estatuko Administrazioa	58
Frantziako Estatuko Administrazioa	2
Eusko Jaurilaritza	174
Nafarroako Gobernua	93
Euskal Hirigune Elkargoa	3
Arabako Foru Aldundia	2
Bizkaiko Foru Aldundia	39
Gipuzkoako Foru Aldundia	8
Baionako Herriko Etxea	2
Bilboko Udala	19
Donostiako Udala	13
Gasteizko Udala	26
Iruñeko Udala	45
Arabako udalak	4
Bizkaiko udalak	92
Gipuzkoako udalak	13
Nafarroako udalak	19
IEH Herriko etxeak	2
Mankomunitateak/Herri elkargoak	8
Eusko Legebiltzarra	2
Nafarroako Parlamentua	1
EAEko Arartekoa	1
Bizkaiko Batzar Nagusiak	1
OROTARA	627



01

Estatuetakoa administrazioak

ESPAINIAKO ESTATUA

Espainiako Estatuko administrazioen aldetik, legeak euskara ofiziala den tokietan ezarritako betebeharrak albo batera utziz, hainbat departamentutatik kartel, informazio zein bestelako euskarriak gaztelania hutsean zabaltzen jarraitzen da.

Hainbat kanpainaren karira prentsan jartzen diren iragarkiak ere gaztelaniaz izaten dira gehienbat. Espainiako Estatuko administrazioek kalean jarritako iragarkiek ere gaztelania hutsean izaten jarraitzen dute.

Gizarte Segurantza zein bestelako estatu mailako erakundeek herritarrei zuzendutako gutunak gaztelania hutsean helarazi dituzte Nafarroa osora, eta ez dituzte ofiziala den eremuetako herritarrekiko irizpideak ere betetzen. Espainiako Estatuko Ogasuna, SEPE eta Gizarte Segurantza (INSS) izan ziren 2022an kexa gehien jaso zituzten erakundeak.

1002-2022 dosierra

“Gutuna eta honekin batera datorren esku orria gaztelania hutsean bidali dizkit Espainiako Gizarte Segurantzak. Euskara ofiziala da nire herrian, eskubidea dut administrazioen komunikazioak euskaraz jasotzeko. Jakin beharko lukete eta erantzukizunez jokatu”.

SEPE bezalako erakundeek dokumentuak euskaratzeko lanean dabiltzala adierazten duten arren, oraindik orain, gehienak ezin dira euskaraz eskuratu eta euskaraz argitaratzen direnerako, askotan, gaztelaniazko bertsio berriak izaten dira. Hortaz, ez da sistematikoki informazioa euskaraz eguneratzeko modurik ezartzen.

407-2022 dosierra

“Lan-erreformaren harira indarrean sartutako lan-kontratu eredu berriak jarri zituen SEPEk sarean gaztelaraz, baina



Espainiar Estatuko administrazioek kalean jarritako iragarkiak, gaztelania hutsean.

euskaraz horietako bi kontratu mota bakarrik dituzte oraindik. Gehien erabiltzen den aldi-baterako kontratua oraindik ez dago euskaraz. SEPEko webgunean eskaera egin eta haxe izan zen erantzuna hitzez hitz: “En respuesta a su consulta : No sabemos cuando estará la traducción, lamentamos no poder ayudarle.”

Espainiako Estatuko garraibide publikoetan eta geltokietan euskaraz zerbitzua zein informazioa jasotzeko ezintasunak agertu dituzte herritarrek, arreta zuzeneko zerbitzuetan ere ez da inongo neurririk hartzen euskarazko zerbitzua bermatu ahal izateko. Renfe, Aena, Adif, Correos, Gizarte Segurantza... Herritarrei euskara

ofiziala den eremuetara ere gaztelania hutsean bidali dizkie jakinarazpenak DGT delakoak.

991-2022 dosierra

“Donostia - Bartzelona trenean, Renfek ez ditu oharrak eman euskaraz. Bai, ordea, ingelesez (Euskal Herriko geldialdi guztietan) edo katalanez (Donostian eta Zumarragan).

809-2022 dosierra

Gasteizko aireportuan bozgorailuetatik abisuak erdara hutsean ematen dituzte, eta pantailetan, gaztelaniaz eta ingelesez besterik ez. Gasteizen ala atzerrian ote nago? Nire eskubideak ziurtatzea eskatzen dut.



Euskara ofizial den eremuetan ere gaztelania hutsezko gutunak iristen dira, DGTren eskutik.



Espainiako Estatuko plataformetan ezin da normaltasunez euskaraz nabigatu.



Gizarte Segurantzak eskaintako ikastaro asko ezin izaten dira euskaraz egin.

FRANTZIAKO ESTATUA

Frantziako Estatuko administrazio zentralak hizkuntza eskubidei inongo aitortzarik egin gabe jarraitzen du eta, beraz, herritarrek edozein eginbehar publiko egiterakoan euskara erabiltzeko ezintasun nabarmenak izaten jarraitzen dute.

Frantziako Estatuaren mende dagoen Pirinio Atlantikoko administrazioek informazioa hizkuntza gutxituetan eskaintzeko neurri txikiren bat hartu duten arren, oso neurri sinbolikoak izaten ari dira, eta ez dute informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea behar bezala bermatzen.

265-2022 dosierra
“Pirinio Atlantikoko Departamenduaren webgunearen (<https://www.le64.fr>) zati bat euskaraz eta gaskoieraz bada ere, eduki nagusiak eta albisteak frantsesez soilik eskainiak dira. Euskaldunon eta gaskoien hizkuntza eskubideak zinez errespetatzeko, webguneko eduki guztiak izan behar litaizke hiru hizkuntzetan.”

Frantziako Estatuko administrazioen aitortza ezak talka egiten du, behin eta berriz, euskaraz ikasteko oinarrizko eskubidearekin.

Hala ere, Correos bezalako erakundeek urratsak egin dituzte idatzizko baliabideak euskaraz ere jartzeko, baina ahozko arretari dagokionez, ez dira behar adinako neurriak hartzen ari.

Webguneetan eta sortzen diren hainbat aplikaziotan euskara txertatu arren, askotan azaleko edukiak soilik euskaratzen dituzte (izenburuak), beste askotan oraindik ez da euskarazko aukerarik ematen. Aplikazioak zuzenean gaztelaniaz sortzen dira.

Espainiako Estatuak faktura elektronikoak erregistratzeko erabiltzen duen plataformak (FACE), ez ditu euskaraz sortutako fakturak onartzen, ez ditu euskaraz hutsean idatzitako fakturak onartzen eta horrek arazo nabarmenak sortzen ditu euskaraz lan egiten duten administrazioetan, hornitzaileek ere euskaraz lan egin arren, plataforma

honek beraien arteko euskarazko fakturak ez dituelako onartzen.

Face plataformaren webgunean bertan ere, euskara hautatzeko aukera egon arren, testuak ez dira bat ere ulergarriak eta herritarrek azalpenak ulertzeko hizkuntza aldatu behar izaten dute. Gainera, laguntza teknikorako esku liburuak, galdera-erantzunen atalak zein bestelakoak gaztelaniaz agertzen dira euskarazko bertsioa hautatu arren. Azkenik, administrazio elektronikoari lotutako webguneetan, euskara hautatuz gero, orrialdeak akatsa ematen du, eta ez da inolako informaziorik eskaintzen.

Face plataforman ez ezik, Orve izeneko plataforman administrazioen artean harremantzeko erregistroa ere ez dago euskaraz erabiltzeko gaitua.



02

Administrazio orokorra

Administrazio zerbitzu orokorren barruan, herritarrek zerbitzu mota ugari jasotzen dute eta urtero-urtero, horiekin hainbat harreman eta eginbide izaten dituzte. Pandemiaren ostean, administrazio orokorretako sailek gero eta zerbitzu telematiko gehiago jarri dituzte herritarren eskura, hala ere, horiek euskaraz erabiltzean sortzen diren mezu eta jakinarazpenetan gaztelaniaz erantzuten zaie herritarrei.

43-2022 dosierra

“Ekoetxeen albisteak eta bestelakoak jasotzeko harpidetza egiterakoan, euskaraz nabigatuta ere, berrespen mezua gaztelaniaz agertzen da. Harpidetza aldatzeko ere gaztelaniaz baino ezin da egin.”

464-2022 dosierra

“Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroko ziurtagiria eskatu dut Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa bidez. Sortu den espediente elektronikoa izenburua gaztelaniaz baino ez da ageri -(EU) Solicitud de certificación del Registro de Parejas de Hecho de Euskadi-, egoitza elektronikoko “Nire karpeta” izenekoan zein Euskal Administrazioaren ziurtapen elektronikoa abisu-zerbitzuak bidalitako posta elektronikoa.”

865-2022 dosierra

“Gure fundazioaren ziurtagiri digitalaren eskaerari erantzunez gaztelania hutsean bidali digu izenpek eposta mezua.”

598-2022 dosierra


Arreta Goiztiarreko Zentrotik eskutitza jaso dugu postontzian. Eskutitza, eta honekin batera datorren zentroaren kokagunearen inguruko informazioa, gaztelania hutsean daude. Telefonoz eskaintzen diren zerbitzuetan izandako kexen artean, pertsona nagusiei zein zaurgarriei bideratutako zerbitzuetan, erabiltzailearen hizkuntza eskubideen zaintzari ez zaio beti behar adinako garrantzia ematen eta askotan erabiltzailearen hizkuntza hautua baldintzatzen jarraitzen da.

340-2022 dosierra

“Nafarroako Ogasun Departamentura deitu dut gaur goizean errenta aitortpena egiteko hitzordu librean eskuratzeko modua zela aipatu zidatelako. Euskaraz eman dizkiot azalpen guztiak baina “en castellano” erantzun dit eta gaztelaniaz egitera behartua sentitu naiz. Atzo ere deitu nuen eta gaztelaniaz egin behar izan nuen. Ez al da ba gure eskubidea ogasuneko zerbitzuak euskaraz jasotzea? Ezin gara beti horrela ibili.”

370-2022 dosierra

“Etxean, Eusko Jaurlaritzaren BetiOn telelaguntza-zerbitzu publikoa daukagu kontratatuta, 88 urteko gure amarentzat. Zerbitzura deia egin genuen, amak mediku bat-edo behar zuelakoan, eta nahiko arin jarri gintuzten mediku batekin. Medikua ez zekien euskaraz, eta euskaraz artatzeko eskatu genuenean, esan ziguten itxaron egin beharko genuela, laster deituko zigutela, eta eskegi egin ziguten deia. Minutu batzuk pasatu ondoren, amaren egoerarekin



Zerbitzu telematikoetan edota posta bidezkoetan ez da euskarazko arreta bermatzen, euskara hautatu arren.

kezkatzen hasita eta deirik jasotzen ez genuenez, berriro deitu genuen BetiOn zerbitzura, eta, orduan, deia kudeatzen zuen pertsonak esan zidan: “¿no puedes hablar en castellano?” eta “Estás poniendo el idioma por delante de la salud de tu madre”. Deia eskegi, eta zain utzi ninduten berriro. Azkenean, larrialdietako telefonora deitu behar izan genuen, eta anbulantzia bat etorri zen etxera...”

Horrelako kasuetan, herritarrek zera nabarmentzen dute:

-Zerbitzuak euskaraz eskatzen direnean, zain egon behar izatea (zerbitzua berehalakoan eta berme guztiekin jasotzeko gaztelania erabiltzera behartzen dira erabiltzaileak).

-Zerbitzu horiek eskaintzen dituzten pertsonak euskara erabiltzeagatik jarrera oldarkorra edo enpatiarik eza jasan behar izatea.

2022ko urtarrilean, UEMAK eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak agerraldia egin zuten elkarrekin Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako batzordean. Nafarroako Gobernuak webguneetan herritarrek 1.434 tramite telematikoa egin ditzakete eta horietatik 334 tramitek (%23,29) soilik eskaintzen dute euskarazko aukera. Udalek eta toki-erakundeak egin ditzaketen tramite telematikoei dagokienez, askoz larriagoa da egoera, 778 tramite egin baititzakete, eta horietatik 20 baino (%2,57) ezin baitira egin euskaraz. Egoerari konponbidea jartzea eta tramiteak euskaraz egin ahal izango direla bermatzea eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari.

Datu horiek ondorio nabarmenak dituzte herritarren zein toki-erakundearen egunerokoan, itzulpengintza zerbitzuak



Nafarroako ogasuneko webgunea, gaztelania hutsean.

ez baitira gai administrazio sailetatik egunero sortzen diren eduki guztiak garaz itzultzeko.

633- 2022 dosierra

“Ekainaren hasieran udalak osoko bilkuran onartutako ehiza barruti berri bat eratzeko akordio bat eta ehiza elkarteari esleitzeko baldintza plegua bideratu zituen Nafarroako Gobernuaren Ehiza atalera, atal horretatik espedienteari dagokion ebazpena egin zezaten. Dokumentuak gure lan hizkuntzan bidali genituen, euskaraz. Ekainaren 7an Ehiza ataletik esan ziguten dokumentuak Nafarroako Gobernuaren itzulpen zerbitzuan itzuli behar zirela eta, mesedez, word formatuan bidaltzeko. Eta halaxe bidali genituen. la hilabete pasa eta gero, ikusita ebazpenik ez zela iristen, Ehiza atalera deitu eta telefonoz esan ziguten ebazpena ezin izan omen zutela egin itzulpen zerbitzuak itzulpena ez zuelako egin. Hori horrela, presaka, egun horretan bertan udalean itzulpena egin eta Ehiza atalera bidali genuen. Kezkatuta gaude



espedientea hilabetez geldu egon delako eta, ehiza denboraldia abuztuaren 15ean hasten denez, ehiza elkartea esleipen prozeduraren zain dagoelako. Espedienteak hainbeste atzeratzeak arazo larriak ekartzen dizkio udalari, eta, ondorioz, partikularrei edo herritarrei. Gogorazi nahi dugu euskara ofiziala dela eta euskaraz eginiko agiriek balio juridiko osoa dutela.”

905-2022 dosierra

“Nafarroako ogasunean hitzordua euskaraz eskatzen saiatu arren, web gunea gaztelania hutsean dago.”

Administrazio orokorreko zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzeko beharrezkoa da lanpostu guztietan euskararen ezagutza bermatzea. Hori horrela izanik, 2022an ere herritarrek lanpostu publikoko ehundaka deialditan euskararen ezagutza ez zela nahitaezkoa edo merezimendua baino ez zela salatu zuten.

279-2022 dosierra

“Martxoaren 22an Nafarroako Gobernuak zerbitzuko suhiltzaile izateko 45 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia atera zuen. Lanpostu gehienetan ez zen euskara jakitea eskatu. Bestalde, martxoaren 31ean Foruzingoko agenteen 43 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia atera zen. Horietatik ez dakit zenbat diren lanpostu elebidunak, baina oso gutxi eta eremu euskaldunean kokatuak daude. Ondorioz, herritarrek ezingo dugu agenteekin euskara erabili, gaztelaniaz egitera behartzen gaituzte.”

901-2022 dosierra

“515/2022 eta 516/2022 ebazpenen bidez



Nafarroako toki erakundeetako idazkari eta kontu hartzaileen lanpostu hutsak betetzeko deialdiak argitaratu dira. -Idazkari lanpostuetatik, eremu euskalduneko 6 erakundetan ez da nahitaezkoa euskararen ezagutza.- Kontu hartzaileen lanpostuei dagokionean, eremu euskalduneko erakundeetan soilik da euskararen ezagutza nahitaezkoa. Orkoiengo Udalean merezimendua da eta eremu mistoko gainerako 7 erakundetan, ez da nahitaezkoa ezta. Lanpostu guzti hauetan euskararen ezagutza nahitaezkoa jarri ezean, herritarrei zerbitzuak euskaraz eskaintzea galerazten da. Bestalde, eremu mistoko merezimenduei dagokionean, euskara jakin gabe puntuazio berbera atera daiteke atzerriko hizkuntzak duten pisuagatik.”

Horrekin batera, kontuan izan behar da, 2022an administrazio publikoetan milaka lanpostu egonkortu direla, eta, beraz, hurrengo urteetan eman beharreko zerbitzu publikoetan hizkuntza eskubideak baldintzatuko dira. Bereziki larria izan zen Nafarroako Gobernuaren lan deialdietan euskararen ezagutzak izan zuen balorazio eza (batik bat administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen zuen 1036/2017 Foru Dekretuaren hainbat artikulua baliogabetu ostean Nafarroako Gobernuak ez duelako lege-babesik artikulatu).

981-2022 dosierra

“Azaroan egonkortze prozesuen ondorioz, Nafarroako Gobernuak oposizio lehiaketa bidez 52 lan-deialdi hauek egin zituen. Euskararen ezagutzaren balioa, legeak ezarritako eremu euskalduneko 100 puntutik 4’4 puntutakoa izan zen (% 4’40); eremu mistoan eta “ez euskalduneko” 100 puntutik 0 puntu (% 0).”

Euskal Autonomia Erkidegoan ere hainbatean ez da ezarri euskararen derrigorrezko ezagutza lanpostu publikoak eskuratzeko deialdietan. Kontuan izan behar da, EAEko administrazio orokorretako ehundaka lanpostuk derrigortasun data ezarri gabe dutela.

127- 2022 dosierra

“Spring Spain enpresaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartek, garapen teknikari lan-postua betetzeko deialdia atera zuen atzo. Deialdiaren arabera, eginkizunen artean dago besteak beste, sistema edo aplikazioen programen prestakuntza eta laguntza teknikoa ematea erabiltzaileei. Euskara eta ingelesa baloragarriak direla jartzen du, baina erabiltzaileei prestakuntza eta laguntza teknikoa eman behar bazaio, nola bermatuko dira pertsona horien hizkuntza eskubideak euskara jakitea nahitaezkoa ez bada?”

Deialdi publikoetako azterketak eta probak euskaraz egin nahi izatera, hainbat desabantaila salatu dituzte hautagaiek:

-Hautagaien eskura jartzen den ikasmateriala gaztelaniaz egotea.

-Azterketak euskaraz egin nahi direla adierazi arren, proba psikoteknikoak, adibidez, gaztelaniaz izatea.

-Azterketetako azalpenak gaztelaniaz izatea, eta euskaraz zalantzak argitzeko inor ez izatea.

-Euskarazko azterketa eta probak hautatuz gero, galderak gaizki planteatuta egotea edo zalantzak sorraraztea.

Oztopo horiek gainditzeko beharrezkoa da deialdi guztietan hautagaien eskura jartzen den ikasmateriala

“ Milaka lanpostu egonkortu direnez, hurrengo urteetan eman beharreko zerbitzu publikoetan hizkuntza eskubideak baldintzatuko dira ”

euskaraz ere badagoela ziurtatzea, euskaraz homologatu gabe jarraitzen duten probak gaitzeko prozesuak azkartzea edo euskaraz homologatuta dauden beste proba batzuk baliatzea, azterketen kudeaketa azpikontratatzeko euskaraz aritzeko gaitasuna ziurtatzea edo espezialitate edo jarduera zehatzetako profesional euskaldunek galderak egoki planteatuta daudela ikuskatzea.

968-2022 dosierra

“Suhiltzaileen lanpostuak esleitzeko hautaketa-prozesuan hautagaiak psikoteknikoa gaztelaniaz egin behar izan dute derrigorrean. Hautagaiei euskaraz aritzeko gaitasuna eskatzen zaie (eskerrak!), baina Eusko Jaurlaritza ez da gai haiei azterketa oso-osorik euskaraz egiteko aukera emateko.”

Bestalde, 2022an ere Eusko Jaurlaritzak azpikontratutako segurtasun eta arreta zerbitzuetan, hizkuntza eskubideei inongo aitortzarik egiten ez zaiela adierazi zuten hainbat herritarrek. Izan ere, azpikontratutako hainbat zerbitzutako baldintzetan, ez da ezer jasotzen zerbitzuok euskaraz jasotzearen inguruan. Beste hainbat kasutan, aldiz, baldintza pleguetan zehaztu arren, ez da behar bezala zaintzen baldintza horien betetzea.


506- 2022 dosierra

“Donostiako San Bartolome kalean Eusko Jaurlaritzak dituen Izenpe eta beste zerbitzu batzuen bulegora sartu naiz eta bertako langile batek (segurtasun etxe azpikontratatu) gazteleraz egin eta nik euskaraz egin diot. Artatua izateko gazteleraz hitz egin behar dudala esan dit, ez hori bakarrik, “tienes que decirme tu nombre y apellidos en castellano”. Lotsagarria.”

604-2022 dosierra

“Gasteizko Kontsumobideko egoitza nagusian zita neukan 9:10ean. Sartzean, bertan zegoen segurtasun arduradunak zita ote neukan galdetu zidan, gazteleraz. Nik, euskaraz, zita bederatziak eta hamarrean neukala esan nion. Berak, gazteleraz berriz galdera berbera egin zidan, eta nik, erantzun berbera euskaraz. Bizpahiru aldiz gehiagotan egin genuen horrela, eta bitartean, ez zidan pasatzen uzten. Ez zidan inoiz ere euskaraz ez zekiela esan eta mesedez gazteleraz hitz egiteko. Aldiz, haserre jarri zen eta azkenean oso modu txarrean berak gazteleraz egiten bazidan, nik ere gazteleraz egin behar niola esan zidan, eta nik gazteleraz hitz egin arte ez zidan pasatzen utzi. Goiko langileek esan zidatenaren arabera, aurreko egunean segurtasun arduradun berberak beste pertsona batekin antzeko ika-mika izan omen zuen.”

Administrazio zerbizuen barruan, herritarrek Lanbiderekin dituzten eginbeharretan zein erakunde honek eremu sozioekonomikoari lotuta eskaintzen dituen zerbitzuetan, euskarazko eskaintza eza nabarmen-



Zerbitzu telematiko askotan gaztelania hutsean ematen da informazioa.

du zen. Izan ere, ez da beti euskarazko arreta behar bezala bermatzen eta Lanbideren bidez eskaintzen diren ikastaro, formakuntza zein bestelako zerbitzuetan euskarazko eskaintza falta izan zela adierazten zuten herritarrek.

125-2022 dosierra

“Lanbide langabeentzat eskaintzen dituen 585 ikastaroetatik guztiak dira gaztelaniaz. Tira, guztiak ez: euskara ikastaroak euskaraz dira, baita Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko herrietan ere, baita hizkuntzarekin zerikusirik handia duten arloetan ere: turismoa, hezkuntzako teknologiak, bezeroarekiko harremanak...”

Teknologia berrietan ere, hutsune larriak nabarmendu dituzte herritarrek. Ondorioz, hainbat aplikazio euskaraz behar bezala gaitu gabe egoteak edo euskaraz erabili nahi izateak erabiltzaileei sortzen dizkien oztopo edo albo-kalte ondorioek herritarrek beste hizkuntza batzuk erabiltzea dakarte. Esaterako, KZ guneetan “Power Point” IKT txartela lortzeko aplikazioan euskaraz egitea

hautatzean, sistemaren akatsak (aplikazioak ingelesez planteatzen zituen azterketako hainbat galdera).



03

Osasungintza

Osasun arreta euskaraz izatea zerbitzuaren kalitate-rako eta diagnosi egoki baterako ezinbestekoa izateaz gain, pertsonetikiko gertutasunari eta gizatasunari ere lotzen diete herritarrek, eta horrek badu isla herritarrek osasungintza publikoaren esparruan jarritako kexetan.


OSAKIDETZAri dagokionean, pazienteek eta erabiltzaileek hizkuntza hautatzeko sistema eskaintzeak herritarrek euskarazko zerbitzua aldarrikatzeko joera ekarri du. Azken datuen arabera, 330.000 erabiltzailek adierazi dute harremana euskaraz nahi dutela. Hala ere, hainbat dira oraindik euskarazko arreta eska dezaketela ez dakiten herritarrek, edota beste hainbat osasun zerbitzutan euskara erabiltzeko beldur izaten direnak. Izan ere, arreta eta harremana euskaraz nahi dela adierazi arren, askotan izaten dira hori bermatzen ez duten egoerak.

193- 2022 dosierra

“Otsailaren 22an pazienteak eta erabiltzaileak atenditzeko zerbitzuan erreklamazio bat egin nuen. Bertan, familiako medikuak, orain arte bezala, euskaraz artatzea eskatzen nuen Oñatiko osasun zentroan. Azaltzen nuen oraingo familia medikuak erderaz hitz egitera behartzen nauela eta horren kontra nagoela. Familiako medikuak euskaraz artatzea eskatzen nuen. Jaso dudan erantzunean esan didate arreta euskaraz jaso nahi duten erabiltzaileen nahiak asetzen saiatzen ari direla baina, egungo egoera, bajak, lanpostu hutsak eta oporrak betetzeko zailtasunak ikusita, asistentziari lehentasuna ematera behartuta daudela.”

282-2022 dosierra

“Ekainaren 23an nire osasun zentroan (Merceden) ez zitzaidan bermatu medikuak euskaraz artatzea. Bertan esan zidaten



Anbulatorio bateko oharra, gaztelania hutsean.

Miribillan aukera hori zegoela eta idatziz eskatzeko. Tamalez, Miribillatik deitu zidaten egun batzuk geroago komentatzeko ez zeukatela medikurik euskaraz artatzeko eta hori ez zela lehentasuna. Dagoeneko hilabeteak igaro dira berririk gabe. Lotsagarria iruditzen zait ezer ez egitea. Ez didate konponbiderik eskaini auzoan (San Fran-Miribilla) euskarazko arreta izateko...”

309-2022 dosierra

“Irungo anbulatorioko urgentzietara etorri gara. Artatu gaituen medikuak euskaraz hitz bakar bat ere ez du egin. Agur esateko ere ez. Urtebetean bitan etorri gara eta bietan berdin.”

Behar berezietarako langileak kontratatzen direnean edota zerbitzuren bat azpikontratatzenean, hizkuntza irizpideak behar bezala ez bermatzeak ondorio zuzenak izaten ditu herritarren arretari dagokionez.

12-2022 dosierra

“Goizeko 09.25ean nire telefono mugikorrera deitu zuten gazteleraz niregatik galdetzen, esan zidan Osakidetzatik deitzen zuela Segurako Osasun Zentroko atentzioa baloratzeko, hori dena gazteleraz, euskeraz esaterik ba al zeukan galdetu nionean esan zidan ezetz, berak gazteleraz esango zidala eta ez negoela erantzutera behartuta, azalpenak ematen hasi nintzenean modu txarren telefonoa eskegi zidan.”

26- 2022 dosierra

“Urdulizeko ospitalean antigeno testa egin berri. Hitz egin dudana 6 langileekin ez dut euskaraz hitz egiteko aukerarik izan, harrerakoarekin ere ez. Uribe bezalako eremuan non euskaldun dentsitate handia den zelan da posible? Noiz arte?”

Egoera horietan, ordezeko elebidunak kontratatu behar-ko lituzketen kasuetan ere, OSAKIDETZAK euskara ez dakiten profesionalak kontratatzen dituela erantzun izan du. Eremu batzuetan medikuak lortzeko zailtasunak dituztela erantzun du, eta, beraz, lanpostu horiek euskararen ezagutzaren derrigortasuna izan arren eta pazienteek euskarazko arreta eskatu arren, herritarra- ren hizkuntza eskubideak ez direla bermatzen onartu izan du OSAKIDETZAK berak.

Osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko ezintasun nabar- menak daude batez ere mediku espezialisten kasuan.

425-2022

“Gernika-Lumo ospitaleko traumatologiako medikuak ez zekien euskaraz, eta hortaz, gaztelera izan da kontsulta.”

OSAKIDETZatik dokumentu guztiak ele bitan daudela ziurtatzen duten arren, osasun etxe batzuetan gaztelaniazko informazio eta dokumentuak luzatzen zaizkie herritarrei.

423-2022 dosierra

“San Bizenteko anbulatorioan dokumentu batzuk eskatu genituen eta gaztelaniaz luzatu zizkiguten, euskaraz ez omen dituzte. Adibidez bere ardurapeko adin-gabeen osasun-karpeta eskuratzeko guraso/tutoreek eskaera egitekoa.”

OSAKIDETZAK telefono bidezko arretarako irizpideak ezarrita dituen arren, langile bakarra egoten denean edo langileen atsedendialdiak direnean zein kontratazio berriak ematen diren garaietan euskarazko arreta jasotzeko ezintasuna izaten dute herritarrek.

481-2022 dosierra

“Galdakaoko ospitalera deitu behar izan nuen nire aita larri ingresatu zutelako, informazio eske. Telefonoan zegoenak gaztelaniaz egin behar nuela adierazi zidan eta euskaraz artatu ahalko ninduen pertsonaren bat nahi nuela esatean, bera bakarrik zegoela esan zidan. Ostean zainketa intentsiboetako unitatearekin pasatu zidaten deia, honek ere euskaraz ez zekiela eta gaztelaniaz egin behar nuela adierazi zidan. Tamalgarria da horrelako momentuetan Osakidetzak euskarazko arreta ez bermatzea, profesional guztiak euskarazko gaitasuna beharko lukete eta horretan arduradunek badute zer egina.”



Odol emaileen aplikazioa, euskarazko bertsioa aukeratu arren, gaztelaniaz.

695-2022 dosierra

“Lasarteko osasun zentrora, 943007960 telefonora, deitu dut arratsaldeko 17:30ean hitzordua hartzeko. Telefonoa hartu duenak ez zekien euskaraz eta euskaraz artatuko ninduen beste inor ez zegoela esan dit. Orain arte gehienetan euskaraz egin ahal izan dut”.

OSAKIDETZAREN APPa euskaraz erabiltzeko zailtasunak identifikatu zituzten herritarrek kexen bidez. Batzuetan, gaztelaniaz daude hainbat kontzeptu eta, bestetan, euskara hautatu ostean, gaztelaniazko bertsioa bueltatzen da aplikazioa.

Bestalde, zenbait profesionalak uniformeetan “euskaraz” ikurra jantzita eraman arren, euskaraz artatzeko gai ez direla jakinarazi izan dute herritarrek. Horren

“ Herritarren hizkuntza eskubideak ez direla bermatzen onartu izan du Osakidetzak berak ”

aurrean, OSAKIDETZAK jarraibideak eman behar izan zituen euskaraz artatzeko gai ez ziren profesionali gogorarazteko ikur hori ezin eraman dezaketela.

560-2022 dosierra

Gasteizko Olagibel Osasun Zentroan pediatria zerbitzua dute. Bertan egon nintzen ekainaren 20an eta pediatrik daramatzan jantzietan euskaraz hitz egiten duen ikurra dauka, baina gero ez daki euskaraz, ezta hitz bat ere. Orduan “euskaraz” ikurrak zertarako balio digu orain??? Horiekin ere gure euskarazko lehenengo hitza neurtu beharko dugu haien erantzuna nolakoa izango den zain??

Euskaraz artatuak izateko eskubideaz gain, profesionalak euskaraz lan egiteko eskubidea ere aldarrikatzen



Profesionalentzako ikastaroa, gaztelania hutsean.

831-2022 dosierra
Osateken 943007075 Donostiako bulegora deitu nuen eta ezin izan nuen euskaraz arreta jaso telefonoa hartu zuenak euskaraz ez zekielako.

Hartara, neurriak OSAKIDETZAK zehaztutako eremu soziolinguistikoen arabera hartzeak osasun-etxe edo ospitale batzuetan euskaraz artatuak izateko berme gutxiago egotea eragiten du. 2022ko abenduan, Osa-kidetzan euskara normalizatzeko hirugarren plana aurkeztu zen arren, horrek ez du ia aurrerapausorik ekarri hainbat eremutan.

Lan deialdietan, eremu edo osasun etxe batzuetako lanpostuei ez zaie hizkuntza eskakizunaren derrigortasun-data ezarri eta, beraz, behin eta berriz, euskararen ezagutzarik ez duten profesionalak lan deialdi publikoetan parte hartzen jarraitzen dute. Horren ondorioz, euskarazko arreta eskatua duen herritarrari ez zaizkio eskubideak bermatzen.

932-2022 dosierra
“Azaroaren 8tik 14ra, Barakaldon mediku lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia ireki dute. Euskara jakitea ez da nahitaezkoa eta merezimenduen atalean ia ez du punturik (ia ingelesaren pare baloratzen da). Ondorengo funtzioak izango ditu deialdiaren arabera: laneko segurtasun eta osasunaren arloan planak eta programak egitea, kudeatzea eta ebaluatzea; horretarako, arrisku-faktoreak identifikatu behar dira, azterketak egin eta larrialdiak atentitu behar dira, kontsultei erantzun behar zaie eta ebaluazio-txostenak egin behar dira. Euskarazko osasun arreta ezingo da behar bezala bermatu. Barakaldon ere, osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubide berbera dugu eta horrela ez da asistentzia euskaraz bermatuko.”

“ Lan deialdietan, eremu edo osasun etxe batzuetako lanpostuei ez zaie hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna-data ezarri ”

Nafarroan, OSASUNBIDEARI dagokionean, 2022an ere aurreko urteetako antzeko egoera izan da. Herritarrek etsipenez daramate OSASUNBIDEAN euskarazko arreta ezin jaso ahal izatea. Izan ere, euskara ofiziala den legeak ezarritako eremu euskalduneko herritarrei ere ez zaie osasun arreta eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea beti bermatzen.

277-2022 dosierra
“Apirilaren 2an, Etxarri Aranazko osasun etxera joan nintzen eta, medikua euskalduna ez zenez, gaztelaniaz aritu behar izan nuen.”

Osasun zerbitzu zentralak eta ospitaleak legeak ezarritako eremu mistoan daude, bai eta legeak ezarritako eremu ez euskaldunean ere. Bestela, OSASUNBIDEAREKIN harremana euskaraz nahi dela adierazteko aukera dagoen arren, ez da aukera horren berri ematen eta euskarazko harreman hori OSASUNBIDEAK helarazitako mezu eta gutunetara mugatzen da bereziki. Hau da, ez dago profesional euskaldunak esleitzeko modu sistematikorik, besteak beste, profesionalen kontratazioan zein sektoreko lan-deialdi gehienetan euskararen nahitaezko ezagutza duten lanpostuak oso gutxi izaten

dute, baina egun oraindik profesionali zuzendutako ikastaro gehienak gaztelania hutsean eskaintzen dira.

Langileen eskarien ondorioz, 2022tik aurrera, OSATEKEK eskaintzen duen prebentzioari buruzko ikastaroa euskaraz jasotzeko aukera izango da.

OSATEK bezalako erakunde publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuetan, telefono arretan esaterako, ez dago euskara erabiltzerik. Horren aurrean, OSATEKEKO euskara plan berria (2022-2027) lanpostuen derrigortasun daten inguruko hausnarketa egingo dela erantzun duten arren, 2022an egindako egonkortze prozesuetan hainbat lanpostuk euskararen derrigortasun data ez izateak hurrengo urteetarako zerbitzuak nabarmenki baldintza ditzake.

direlako (gehienetan legeak ezarritako eremu euskaldu-nerako lanpostuak).

851-2022

“Orain arte Arrotxapeako Osasun etxean bageneukan mediku euskalduna, baina aurreko egunean medikura joan eta jada ez dago. Orain mediku erdaldua baino ez dugu ta ez dugu izan honen berririk sorpresa justu medikura joan arte.”

Euskara merezimendu gisa baloratzen den deialdietan ere, puntu guztiak lor daitezke euskararen ezagutzarik gabe. Halaber, legeak ezarritako eremu mistoko lanpostu batzuetarako zein eremu ez euskaldunekoetarako, euskara ez da merezimendu. Atzerriko hizkuntzen (ingeleza, frantsesa eta alamenak) ezagutza, aldiz, Nafarroa osoan kontuan hartzen da.

864-2022 dosierra

“Urriaren 17an, mediku bezala aritzeko 12 lanposturen deialdia argitaratu zuen Nafarroako Gobernuak (25/17/2022 ebazpena). “Eremu ez euskalduneko” lanpostuetan, ingeleza, frantsesa eta alemana jakitea merezimendua da, euskaraz jakitea ez ordea.”

Euskarazko harremana nahi dela jakinarazi arren, herritarrek gutun, mezu zein hainbat kanpainatako euskarriak euskaraz nahi dituela adierazi arren, gaztelaniaz bidaltzen zaie informazioa.

134-2022 dosierra

“Aurretiazko borondateen eskaera egin nuen Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuan, euskaraz egin ere. Bada, eskaeraren gaineko erantzuna gaztelania hutsean bidali dit Nafarroako Gobernuak eta euskara ofiziala den herrian bizi naiz.”

397-2022 dosierra

“Especialistarekin dudan hitzordua konfirmatzeko sms-a bidali dit Osasunbideak, gaztelania hutsean, bidali ere. Osasunbidearekin hartu-eman guztia euskaraz egiteko eskaera egin dut behin baino gehiagotan, eta euskara ofiziala da ni bizi naizen herrian. Zer gehiago egin behar dut euskaldun gisa ditudan eskubideak ziurtatzeko?”


837-2022

“Urriaren 13an neurologoarekin hitzordua dudala gogorazteko sms-a bidali dit gaztelania hutsean Osasunbideak. Ni “zonalde euskalduna” deiturikoan bizi naiz baina, zonifikazio injustua eta zentzugabea ezartzen duen legea ere urratu du Osasunbideak”.

Telefono bidezko arretan ere, osasun etxe gehienetan gaztelaniara pasatu behar izaten dute herritarrek.


843- 2022 dosierra

“Ginekologoarekin hitzordua hartzeko Etxarri Aranazko osasun zentroan dagoen emakumeen arretarako gunera, 948567063 telefonora, deitu dut goizeko 9:30ean, eta telefonoa hartu



Euskaraz egin arren, Nafarroako Gobernuaren gutuna, gaztelania hutsean. Osasunbideatik jasotako sms mezua, gaztelania hutsean.

duen pertsonak ez daki euskaraz. Ulertzeko gaitasunik ere ez (telefono zenbakia euskaraz eman diot, eta 5 zenbakia 8arekin nahastu du)”.



Osasunbideako hizkuntza-paisaia, gaztelania hutsean edo oker.

OSASUNBIDEAko edo haren erakunde autonomoetako egoitza eta zentroetako hizkuntza-paisaian gaztelania hutsean daude kartel, ohar eta seinale asko eta asko. Gainera, euskarazkoetan, askotan, okerreko hitzak erabiltzen dira.

Osasungintza publikoan ez ezik, osasungintza pribatuan ere, euskarazko arreta eta informazioa izatea kalitatearekin lotzen dute herritarrek. Halere, enpresa pribatuak atzean daudenean, betebeharrakiko babes ahulagoa dute herritarrek eta, askotan, osasungintza pribatuko zerbitzuak frantsesez edo gaztelaniaz jasotzen dira. Hortaz, oinarrizko zerbitzu bezala beharko luketen berme maila oso apala da.

267-2022 dosierra

“Baionako Hospitalak (Centre Hospitalier de la Côte Basque) bere jardura Baionan eta Ipar Euskal Herriko beste hainbat herritan ematen du (Donibane Lohitzunen, Garazin...). Artatzen dituzten erien zati bat beraz euskalduna da. Alta, haien webgunea frantses hutsean da, euskaldunon hizkuntza eskubideak urratuz”.

Askotan enpresa hauek osasun sistema publikoarekin hitzarmenak dituzten arren, ez dituzte osasungintza publikoaren irizpideak ezagutzen ez eta aplikatzen.

713-2022

“Bilboko “Ortopedia Nervión” dendako karteldegi eta informazio dana gaztelera hutsean daukate, ez dakit beste dendetan ere gaztelera izango dabezan, baina Osakidetzarekin kontzertatutako zerbitzua izanda euskaraz ere euki beharko eben. Garrantzitsua da bezeroei zerbitzuak euskaraz eskaintzea, batez ere enpresa honen zerbitzuak gure nagusiek jasotzen dabezala kontuan izanda.”

Mediku txostenak zein bestelako agiri garrantzitsuak gaztelania hutsean egiten dira gehienetan, osasungintza publiko zein pribatuan.



04

Segurtasuna eta Herrizaingoa

Segurtasunaren eta herrizaingoaaren alorretan, hizkuntza eskubideen bermea, herritarren segurtasun eraginkorra izateko eskubidearekin lotua dago. Izan ere, euskarazko zerbitzu egoki bat ez eskaintzeak herritarren segurtasuna eta defentsarako eskubidea ere kolokan jar dezake (adibidez salaketa bat egiterako orduan).

Ertzaintzaren kasuan, euskara plana indarrean dagoen arren, egindako aurrerapausoak ez dira ohiko egoerei konponbidea emateko gai izan, eta ondorioz, urtero-urtero antzeko eskubide-uraketak helarazten dizkigute herritarrek.

Batetik, herritarrak beldur izaten dira euskarazko arreta nahi dutela eskatzeagatik izan ditzaketen oztopo edo bestelako ondorio eta jarrerengatik. Kontrolatan edo identifikazioetan euskara erabiltzerakoan erantzun txarrak jasotako herritarrak izan ziren 2022an ere.

521-2022 dosierra

“Ertzaintzaren patrol bategaz gurutzatu naz eta eurak ni ikustean buelta eman dabela igerrri dot. Etxera ailega baino lenau argiak jarri eta bazterrera bota naute... Nik euskarazko arreta eskatu dotziet eta gure alde lan egiten dauzen uniformedunek: “tu dame los papeles y toda la documentación y si eso luego hablas con mi compañero...” “No te entiendo, hay dos lenguas oficiales y yo te hablo en una y ya está!”

866-2022 dosierra

“...Atxiki zituzten Ertzaintzako kideak behin eta berriz mehatxatzen hasi ziren euskaraz hitz egiteagatik, “a mi no me hables en euskara, háblame en castellano”, “como vuelvas a hablar en euskara te parto los dientes”, eta ez mehatxuak bakarrik,

besoa bizkarretik bihurritu zieten oso modu oldarkor eta erreplikatuan, eta hormaren kontra jo zituzten, min emateko eta beldurtzeko asmoz, mehatxu eta irainekin jarraituz, “como me habláis en ese idioma de mierda te voy a hacer el doble de daño”. Gertakari horiei buruzko azalpenak eskatu zizkietenean ere, “habláis en euskara para provocar” erantzun zieten.”

Hainbat ertzain-etxetako arretan ere, herritarrek euskara erabili eta prozedurak euskaraz aurrera eramateko zailtasunak izan dituztela jakinarazi dute:

72-2022

“Hilabetero joan behar izaten dut Galdakaoko ertzain-etxera. Gehien-gehienetan gaztelaniaz jasotzen dut arreta. Ez dute ongi hartzen nik euskaraz egitea eta, maiz, tratua desagokia izaten da arreta euskaraz jasotzeko nahia adierazten dudanean. Erreklamazioa jarri dut eta agenteak aditzera eman zidan gauzak ez direla aldatuko, 40 urtetik gorako agente asko dagoela eta, gero eta agente gazte euskaldun gehiago baldin badago ere, nahikorik ez. Administrazioaren arreta postu guztietan euskaraz dakien langilea egon beharko litzateke. Ez nahiz gehiegi eskatzen ari, eskubidea dugu”.

389-2022

“NANA galdu dut. Berritu ahal izateko salaketa bat jartzera joan nintzen apirilaren 22an Irungo ertzain-etxera. Salaketa prozesu guztia gaztelaraz egin behar izan dut, jendaurrean zegoen ertzaina ez zelako euskaraz atenditzeko gai”.

Horrelako kasuen aurrean, Segurtasun Siletik barkamena eskatzeaz gaindi, euskarazko zerbitzua bermatzeko bestelako neurri zehatzik ez da proposatzen urraketa horien aurrean helarazitako erantzunetan. Bi argudio nagusi izan ohi dira Segurtasun Sailaren erantzunetan: Batzuetan, ertzainek ez dutela egoera hori gogoratzen aipatzen dute edo beste bertsio bat dagoela esaten dute. Bestetan, bertan gertatutakoa euskal gizartearen errealitate soziolinguistikoaren isla dela esaten dute.

Era berean, Ertzaintzaren barne-prozeduretan gaztelaniaz lan egiten da eta horrek, herritarrari heltzen zaion informazioa, bidaltzen zaizkion idatzizko mezuak edo zabaltzen dituzten dokumentu eta oharrak gaztelaniaz izatea eragiten du (edo batzuetan euskarazko bertsioak beranduago argitaratzea). Askotan, herritarrak izapide, denuntzia edo bestelako prozeduraren batean euskara erabili arren, agenteek horiek izapidetzeko edo informatizatzeko gaztelania erabiltzeak herritarrei erantzunak eta mezuak gaztelaniaz itzultzea eragiten du.

539-2022

“Ondarroako ertzain-etxean artatu ninduten bi ertzainak euskaldunak ziren. Harreman guztia euskaraz izan zen eta oso pozik geratu nintzen. Alde horretatik, eskerrak eman nahi nizkieke, ez da askotan halakorik gertatzen eta (salaketa gaztelania hutsez idatzi zuten, hala ere). Baina gero posta elektronikora mezu automatiko bat bidali zidaten, eta dena gaztelania huts-hutsez zegoen...”

97-2022 dosierra

“Eusko Jaurlaritzak argitaratu berri du Larrialdi Aeronautikoen Plan Berezia. Jaurlaritzaren web orritik Plana euskaraz deskargatzera joan naiz eta gaztelaniaz baino ez dago”.

Egoera horiek lotura nabarmena dute Ertzaintzako agente izateko 2022an egin ziren deialdien ezaugarriekin. Adibidez, 2022ko urtarrian Ertzaintzako 424 lanpostu betetzeko egindako deialdi publikoaren arabera, 145 lanpostuk hizkuntza eskakizunaren derrigortasun-data ezarri gabe zuten eta, ondorioz, euskararen ezagutzarik ez zuten hautagaiek ere segurtasun-zerbitzuak eskaini ahalko dituzte. EAEko eremu batzuetan derrigortasun-datarik ez dutenen kopuru nabarmena dago, eta horrek herritarren eskubideen bermea eremu geografikoaren arabera mailakatzea eragiten du.

Bestalde, Ertzaintzako hautaprobak euskaraz egin nahi arren, proba psikoteknikoak bezalakoak euskaraz homologatu gabe daude oraindik.

298-2022 dosierra

“Pasa den martxoaren 19an Ertzaintzarako oposaketa probak egin genituen BECen. Azterketa euskaraz egitea hautatu arren, proba psikoteknikoak gaztelaniaz izaten direla esan ziguten. Antza, proba horiek homologatzeko arazoak daude. Nola liteke 2022an oraindik euskarazko probarik ez izatea? Zenbat urte behar dira proba batzuk euskaraz homologatzeko? Horrek, hautagaiok euskara erabiltzeko dugun eskubidea mugatzen du eta zelan ez, garrantzitsua izan daiteke etorkizuneko agenteek probak euskaraz prestatu zein euskararen erabilera eta herritarrekiko euskarazko zerbitzua sustatzeko. Finean, erakundeak berak dagokion tokia eskaintzen ez badio euskarari, nekez izango da aitortza hori agenteen artean. Azterketa eta prozesu osoa euskaraz egiteko eskubidea dugu...”

Nafarroako Foruzaingoiari dagokionean, zuzeneko arreta zein idatzizkoa gaztelaniaz jasotzen dute herritarrek eta, beraz, legeak ezarritako eremu euskaldunean



Foruzaingoa gaztelaniaz besterik ez darabil komunikazioetan.

ere Foruzaingoko kidegoekin euskara ez dutela erabiltzen aitortzen dute hainbat herritarrek. Bestalde, idatzizko harremanetan zein Foruzaingoa komunikazioan gaztelaniaz besterik erabiltzen ez dela salatzen da. Are gehiago, zabaltzen dituzten dokumentuak zein webguretik egin daitezkeen izapideetako hainbat atal gaztelaniaz izaten dira euskarazko nabigatzailea hautatu arren.

998-2022

“@policiaforal_na” Nafarroako Foruzaingoaen twitter kontutik, gaztelaniaz hutsean txiokatzen jarraitzen da. Kontu ofiziala da. Nafarroako herritarrei informazioa euskaraz ere eskaintzeko betebeharra dute, mesedez neurriak hartzea eskatzen diot dagokien arduradunei.”

Horren aurrean, Nafarroako Barne Sailarekin harremanetan jarri ostean, Foruzaingoaen Komunikazio eta Herritarren Partaidetzarako Taldeko plantilla organikoko lanpostuek ez dutela euskararen eskakizunik jakinarazi ziguten: “ez dirudi egokia denik lanpostu horiek euskara-eskakizuna eskuratzeko baldintza gisa jartzea”. Hortaz, 2022an Foruzaingoko komunikazioa euskaraz egiteko ezintasuna erabatekoa zela aitortu zen.

Herri eta hirietako udaltzainei dagokienez, egoera oso antzekoak errepikatzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, udaltzainen formakuntza zein lan-deialdien gestioa Arkautitik eramateak hurrengo urteetako egoera baldintzatu dezake hizkuntza-irizpideen esparruan. Izan ere, aurretik, udalek deialdi propioak egiten zituzten eta horietan dagozkien hizkuntza eskakizunak ezartzen zituzten. Egun, agenteen kontratazioa Arkautitik kudeatzen da eta beraz, udalen aldi baterako beharren aurrean, lan-poltsa bateratua izango da.

2021eko uztaileko deialdi bateratuan, udaltzaingoko agenteen lan-poltsa eratzeko deialdian parte hartzeko



euskararen B2 nahitaezko ezagutza ezarri zen arren, 2022ko irailean Gasteizko Administrazio auzietako Bigarren Epaitegiak erabaki hori atzera botu zuen eta, beraz, euskararen ezagutza maila hori egiaztatu eta ez duten hautagaiek ere lan-poltsa horietan parte hartu ahalko zutelako erabaki zen. Horrela, udal batek euskararen ezagutza duen agente bat behar badu ere, lan-poltsan ezagutzarik ez duten agenteak soilik geratzea gerta daiteke eta beraz, derrigortasun data duten lanpostuak ordezkatzeko ere euskarazko zerbitzua eskaintzeko gai ez diren agenteak kontratatzea ekar dezake. Arazo horiek ekiditeko, hurrengo urteetan lanpostu finko guztiei derrigortasun-datak ezartzea beharrezkoa izango da. Erabaki berri horrek herri eta hiri batzuetako plantilletan dagoen euskararen ezagutza falta udal gehiagotara zabaltzea eragin dezake.

146-2022 dosierra

“Udaltzaingora deitu dut telefonoz eta telefonoa hartu duena ez da euskaraz hitz egiteko gai izan.”

853-2022 dosierra

“Abadiñoko Udaltzaingoak kotxea gaizki aparkatuta zegoelako isuna jarri zidan urriaren 17an. Isunaren inprimakia euskaraz eta gaztelaniaz baldin badago ere, isunaren gaineko informazio guztia gaztelaniaz beteta baino ez dago. Gaur, hilak 18, udaltzain bategaz egon naiz telefonoz, eta esan dit eurak ez dutela euskaraz jartzeko derrigorrik, nik gaztelera ulertzen dudala argudiatuta.”

197-2022 dosierra

“Arazo larri bat tarteko, Bilboko Udaltzaingora deitu dut gaur 14:13an. Euskaraz hitz egiten hasi naiz eta telefonoa hartu duenak “yo te hablo en castellano”

esan dit. Arreta euskaraz nahi nuela esan diodanean, “Pues no hay nadie que te pueda atender en euskera. A ver si encuentro algo por aquí” erantzun dit. Ondoren “si quieres te hablo en catalán”, “qué más quisiera yo que saber euskera” botu du. Momentu horretan, deia moztu egin zait eta 14:14an deitu egin dut berriro. Telefonoa hartu duenak modu txarrean eta amorrazioz artatu nau. Mingarria eta amorrugarria, benetan, hirugarren mailako herritarra sentitu naiz.”

1049-2022 dosierra

“Atzo, Santo Tomas egunaren bukaeran postua bildu ahal izateko furgonetak sartzeko ordua 20:00etan jarri zigan antolakuntzak. Furgoneta parkinetik ateratzen ari ginela udaltzainak hurbildu ziren zertan ari ginen galdezka, “circule, circule” aginduz. Nik euskaraz eman nion antolakuntzak eman zigan aginduaren berri. Udaltzainetako batek jarrera oldarkorra eta desatsegina erakutsi zuen euskaraz erantzun niola entzun zuenean: ¿Cómo, qué me has dicho? Y encima me hablas así? Ya verás ahora, ya verás ahora. Multa”. Eta libreta atera eta matrikula hartzen hasi zen “yo no tengo porqué hablarte en euskera” esanez.”

830-2022 dosierra

“...barruan zihoazen bi agenteak galderak egiten hasi zitzaizkigun: ea nondik gentozen, zertan genbiltzan.... Nik hori entzutean “mesedez egidazue euskaraz” eskatu nien. “No, nosotros solo en español”, “te vendrá bien para practicar castellano” izan zen beraien erantzuna. Nik ez nuela gaztelania praktikatu nahi, nik arreta euskaraz jasotzea

baino ez nuela nahi erantzun nien. Beraiek orduan gidabaimena eskatu, alkoholimetroa atera eta “pues ahora vas a soplar” botu zidaten. Nik baietz, putz egingo nuela baina, mesedez, arreta euskaraz jaso nahi nuela. Ez zidaten kasurik egin eta alkoholimetroaren proba egin nuen, 0,00 izan zen emaitza. Hori ikustean “ya puedes marcharte” esan eta alde egiten utzi ziguten. Ez daukat hitzik sentitu nuen urduritasuna, umilazioa, inpotentzia eta amorrua adierazteko.”

994-2022 dosierra

Azaroaren 16ko arratsaldean Gasteizko alde zaharrean, udaltzain bati galdera: Barkatu, hau Pinto kalea da? Erantzuna: “si me dices en castellano igual te entiendo, no?”

Nafarroako udaltzainetan ere, euskarazko zerbitzua bermatzeko agenteen hizkuntza eskakizunetan neurriak hartu diren aldietan, epaitegietan errekurritu izan dira eta, beraz, legeak ezarritako eremu euskaldunetako plantilletan izan ezik (eta hemen ere hainbat dira euskararen ezagutzarik eskatzen ez duten lanpostuak), lanpostu oso gutxitan bermatzen da euskarazko zerbitzua eskaintzea. Izan ere, legeak ezarritako eremu mistoko udal batzuetan euskararen ezagutza puntugarria den arren, merezimendu horiek ez dute ahalbidetzen, ezta sustatzen ere, euskararen ezagutza izatea (gehienetan ia puntu guztiak lor daitezke euskararen ezagutzarik gabe).

Adibidez, Iruñeko Udalaren otsailaren 25eko Udaltzaingoko agente lehenen 10 lanpostu eta agenteen 36 lanpostu betetzeko deialdian euskararen ezagutza ez zen nahitaezkoa izan. Merezimendua, aldiz, ez zen %2ra iritsi. Tafallako Udalaren deialdian euskararen ezagutzak atzerriko hizkuntzen ezagutzak bezain beste puntuatzen zuen eta beraz, euskara jakin gabe ere


puntuazio bera lor zitekeen. Tuterako Udaleko Udaltzaingoen 2022ko deialdiaren kasuan, atzerriko hizkuntzen ezagutzari 5 puntu esleitu zitzaizkion, euskararen ezagutza egiaztatzeari ez zitzaion puntu bat bera ere esleitu.

404-2022 dosierra

“Iruñeko Udaltzaingoa euskaraz hitz egin nezakeen galdetu eta “en castellano” erantzun dit atezainak. Iruñeko Udalak ez digu zerbitzu publiko duina eskaintzen euskaldunoi.”

113-2022 dosierra

“Iruñeko Udaltzaingoa twitter kontu ofizialetik (@PamplonaRunaPM), den-dena gaztelaniaz txiokatzen dute. Hiriko zerbitzu publiko bat dira, euskarazko mezuak ere zabaldu behar dituzte!”



Iruñeko Udaltzaingoa twitter kontu ofizialetik den-dena gaztelaniaz txiokatzen dutela salatu dute herritarrek.



05

Hezkuntza

IPAR EUSKAL HERRIA

Hezkuntza sistema publikoaren ardatza frantsesa da. Seaskako zentroek ardatzen dute euskarazko murgiltze ereduaren muina eta Ipar Euskal Herri osoan, euskaraz ikastea ahalbidetzen duen lizeo bakarra dago.

Hezkuntza sistemak ez du neurrik hartzen ikasle euskaldunek gaitasunak euskaraz egiaztatzeko. Hartara, ikasleek Frantziako Gobernuak desberdinkeriaz jokatzeko duela uste dute, beraiek karga bikoitza dutela salatuz. Izan ere, azterketak prestatzeaz gain, ikasitakoa frantsesera itzuli behar dute.

Ondorioz, 2022an ere brebetaren eta baxoaren azterketak euskaraz egin ahal izateko eskubidea aldarrikatu zuten ipar Euskal Herriko milaka hurrek, gaztek, familiak eta irakasleak.

491-2022 dosierra

“Seaskako ikasle guztiak azterketak euskaraz egiteko eskubidearen defentsan, epaitegietan helegitea jarri zuen Seaskak. Bada, Paueko Administrazio Auzitegiak ezezkoa eman dio Seaskak egindako eskaerari.”

Horrekin batera, 2022an, hamaika herritar batu zitzaizkion “azterketak euskaraz” kanpainari, bai eta antolatutako mobilizazioei ere. Ekainean hainbat herritar elkartu ziren Baionan, Pirinio Atlantikoetako Akademia Ikuskaritzaren egoitza okupatuz, Frantziako Hezkuntza ministroarekin hitz egitea eskatzeko. Frantziako polizia oldartu zitzaizen eta hainbat zauritu izan ziren.

2022ko azaroaren 14an, azterketak euskaraz egitea aldarrikatu zuten mila ikasle eta irakasle inguruk. Frantziako Hezkuntza Ministerioaren aurrean, Bordelen, protesta egin zuten azterketak euskaraz egiteko. Bertan



Frantziako poliziaren oldarraldia Azterketak Euskaraz ekimeneko herritarren aurka. Argazkiak: Seaska.



Bordelen, Frantziako Hezkuntza Ministerioaren aurrean egindako protesta, azterketak euskaraz egiteko eskubidearen alde.

izan ziren Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zein Kontseiluko ordezkariak. Izan ere, 2022ko irailean euskal hautetsiz osaturiko delegazioak bilera egin zuen Parisen Hezkuntza Ministerioako ordezkariekin, baina 2022ko abenduan oraindik erantzunik jaso gabe jarraitzen zuten.

NAFARROA

Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza sisteman araudiak D eredu Nafarroa osoan ahalbidetzea ezartzen duen arren, praktikan zailtasunak daude legeak ezarritako eremu misto eta ez-euskaldunean D eredu berriak irekitzeko.

2022ko irailean eta azaroan, Larragako eta Leringo hainbat familiak herri horietako ikastetxeetan 2023-2024 ikasturterako D ereduaren irekiera eskatu zuten, Hezkuntza Departamentuan erregistratutako eskarien



“ Ikuspegi integratzailea mantentzeko jarduerak gaztelaniaz garatzen direla argudiatzen dute ”

Larragan D eredia eskatzeko egindako prentsaurrekoa, ezkerrean. Iruñeko haur eskoletan euskarazko eredia eskatzeko mobilizazioa, eskuinean.

bidez. 18/1986 Foru Arauaren 25 eta 26.artikuluetan aipatzen den bezala, “Euskara irakaskuntzan sartuko da pixkanaka-pixkanaka, progresiboki eta nahikotasunez, egun dauden ikastetxe publikoetan euskaraz irakasten duten lerroak sortuz”. Hortaz, egungo araudiaren arabera neurriak hartzeko eskatu zieten bi herri horietako familiek Hezkuntza Departamentuko arduradunei.

Larragako haurrei dagokienez, herriko ikastetxeak A eta G ereduak eskaintzen ditu. Ondorioz, D eredia hautatu nahi izatera, Lizarrako ikastetxea jartzen zaie erreferentzia zentro bezala (herritik 22 kilometrotara). Leringo ikastetxeari dagokionez, egun A-PAI eta G-PAI ereduak eskaintzen dira. Hortaz, D ereduan ikasi nahi duten haurrek herritik 24 kilometrotara dagoen ikastetxera joan behar izaten dute.

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan adierazitakoaren arabera, eskaerak bi herrietatik egon direla aitortu arren, Larragako eskaera soilik onartuko dute. Hortaz, Lerinen 2023-2024 ikasturterako

D ereduaren irekiera eskatu duten 15 familiak herriko ikastetxean geratu nahi badute, nahitaez hartu behar dute PAI eredia. Ondorioz, 15 haurri euskarazko irakaskuntza ahalbidetzea ukatu edo baldintzatuko zaie.

Haur eskolei dagokienean, 2022an ere haur eskoletan aurrera eramaten ari diren hizkuntza politika salatu zen. Kontuan izan behar da Nafarroako Gobernuak zazpi haur eskola dituela Erkidegoan sakabanatuta eta beste bost Iruñean bertan, eta horietako bitan baino ez da euskarazko nolabaiteko eskaintza egiten (eredu mistoan, ez murgiltze ereduan). Haurren hizkuntza eskubideak bermatzeari begirako erabakietan aurrerapausorik ez zen izan. Eskaintza aktiborik egin ezean, familien eskaria erabat baldintzatzen da, gertuen duten auzoko eskaintza hartu behar izaten dute eta euskarazko lerroen alde egiteko desplazamenduak egin behar izaten dituzte. Bestalde, euskarazko plaza kopuru urriak hori ere mugatzen du.

Nafarroako hezkuntza sisteman D eredia duten ikastetxeetan, mezuak, baliabideak, formakuntza...gaz-

telaniaz besterik ez dira eskaintzen. Horrekin batera, ikastetxeek antolatzen dituzten bileretan, hitzaldietan edo informazioa jasotzeko saioetan ere gaztelania lehenetsi dela salatu dute hainbat familiak. “Ikuspegi integratzailea mantendu ahal izateko jarduerak gaztelaniaz garatzen direla” argudiatuz.

47-2022 dosierra

“Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren (NAPI) eta Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Ideas Fundazioarekin lankidetzan, “modu irisgarrian” izeneko formakuntza saioa iragarri dute (bideoen bidez egiten den formakuntza saioa da). Nafarroako Gobernuan galdetu dut eta bideo horiek ez daude euskaraz. Onartezina iruditzen zait irisgarritasuna eta gizarteratzea bezalako gai garrantzitsu bati buruz euskarazko materialik ez egotea...”

784- 2022 dosierra

“Eskolako zuzendaritzatik Sinarzubi-ren mezua birbidali ziguten familia guztiei. Bi kontu daude, batetik, zuzendaritzatik familiei euskaraz funtzionatzen ez duten ekintzen berri ematea, eta bigarrenik, mezuan dagoen esaldia: “Ikuspegi integratzailea mantendu ahal izateko, jarduerak gazteleraz garatzen dira. Dena den, ekintza guztietan begirale euskaldunak daude partehartzaile euskaldunekin harreman euskalduna sustatu ahal izateko.”. Zalantza sortzen zait, mezu hau irakurri ondoren, gure eskola integratzailea den, edo hala uste duen zuzendaritzak.”

Hezkuntza Departamentuaren zuzeneko arretan zein telefono bidezkoan ez da beti euskarazko arreta bermatzen.

951-2022 dosierra

“Atzo Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala-ren bulegoetan izan nintzen estreinakoz eta bertako bi langilerekin hitz egin nuen. Biengana euskaraz zuzendu nintzen: lehendabizikoak euskara baldarreak mesedez gazteleraz hitz egiteko eskatu zidan, euskaraz moldatzen ez zela eta. Bigarrenak okerrago oraindik: euskaraz kortesiazko hitzik ez, eta gaztelera hutsean eskatu zidan berengana halaxe zuzentzeko, euskaraz tutik ere ulertzen ez zuela erranez”.

Lanbide Heziketa

2022-2023 ikasturterako Nafarroako Hezkuntza Departamentuak Lanbide Heziketarako egiten duen eskaintzan, euskarazko titulazio kopuruak oso urria izaten jarraitzen du.

“ Ikasgai ezberdinak euskaraz eskaintzen diren arren, titulazio osoa euskaraz ez eskaintzeak ikasleak erabat baldintzatzen ditu aukera egiterakoan ,”



Unibertsitatean euskaraz ikasteko neurriak eskatzeko Unibertsitateko Euskara Taldeak antolatutako mobilizazioetako bat.

Goi mailako 58 titulaziotatik 5 besterik ez dira euskaraz eskaintzen. Erdi mailako 40 titulaziotatik 11, eta oinarrizko mailako 17 titulaziotatik 3 hauta daitezke euskaraz.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoan titulazio osoak euskaraz egin ahal izateko ezintasun nabarmenak daude. Izan ere, 2022-2023 ikasturtean ere, gradu bakarra egin zitekeen euskaraz. Gainera, euskaraz eskaintzen diren ikasgai gehienek hezkuntza edo gizarte gaiekin dute

zerikusirik. Bestalde, erizaintza graduak euskarazko ikasgaien eskaintza zabaldu den arren, medikuntzan, adibidez gaztelaniazko ikasgaiak baino ez dituzte ikasleek.

Hortaz, ikasgai ezberdinak euskaraz eskaintzen diren arren, titulazio osoa euskaraz ez eskaintzeak ikasleak erabat baldintzatzen ditu aukera egiterakoan.

Horri lotuta, herritarrek Nafarroako Unibertsitate Publikoan lan-deialdiak egiterakoan euskararen ezagutza



Zerbitzuak euskaraz bermatzeko neurri falta dago Nafarroan.

medikuntzako graduaren ikasketa plana argitaratu zen. Gaztelaniazko gradua soilik eskaintzen da eta ez da euskarazko ikasgaiarik sartzen. Horrelako profesionalak euskaraz jakin beharko lukete eta hori bultzatu beharko luke unibertsitateak.

2022-2023 ikasturtean ere atzerapausoak izan zirela salatu izan dute ikasleek.

954- 2022 dosierra

“Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2022-2023 ikasturtean atzerapausoak eman dira euskaraz ikasi ahal izatearekiko. Telekomunikazio Teknologien Ingeniaritzan, enpresa eta matematikako ikasgaiak gaztelaniaz jarri dira, aurretik euskaraz eman izan diren arren. Ekonomiako graduaren kasuan ere, matematikak I euskaraz izan arren, matematikak II gaztelaniaz jarri da. Ingeniaritza Biomedikoko graduan, euskarazko kredituak murriztu dira, azken urtean euskaraz eskaintako kredituak %45era eraitsi dituzte. Erizaintzako graduan, gradu amaierako lanetan, 103 gaitatik 5 soilik egin ahal dira euskaraz. Beraz, ez dute baimentzen osotasunean gradu amaierako lana euskaraz egin ahal izatea.”

Unibertsitatean euskara plan berria eta euskaraz ikasteko neurri berriak eskatzeko hainbat mobilizazio antolatu zituen Unibertsitateko Euskara Taldeak.

Hezkuntza sistemaren barnean dauden bestelakoetan, zerbitzuak euskaraz bermatzeko neurri falta nabarmena dago Nafarroan. Hezkuntzatik azpikontrataturako edo esleipen bidez ateratako zerbitzu gehienetan ez da inongo baldintzarik ezartzen euskararekin. Gainera, kontuan hartu behar da D ereduak zentroetan edo Nafarroako Unibertsitatean eskaintzen dutela zerbitzua.

“ EAEn Hezkuntza Lege berria osatzearen prozesuan murgilduta izan da sektorea ”

2022ko ekainean, Hezkuntza Departamentuak Tuterako Hizkuntza Eskolan euskarazko taldeak 6tik 3ra murriztuko dituela salatu zuten, euskarazko taldeak osatzeko gutxiengo 10 ikasleko langa jarriz. Hortaz, euskara sustatzeko neurriak hartu beharrean, taldekideen kopuru hori ezartzeak eskaintza murriztuko duela salatu zen.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOIA

2022an Hezkuntza Lege berria osatzearen prozesuan murgilduta izan da sektorea, eta aurrerantzean ere, hezkuntza sistemak dituen behar berriei aurre egiteko, euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza ardatz izateko proposamenek hainbat gizarte eragile bilduko dituzte. Horren harira, 2022ko abenduan, “euskara eta euskal kultura etorkizunean ardatz” adierazpena aurkeztu zen hezkuntzaren, kulturaren eta euskararen munduko 211 aditu, sortzaile eta profesionalen atxikimendua lagun.

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sisteman bertan dauden hutsuneak azalean jartzen dituzten kasuak helarazi zituzten 2022an ere herritarrek:

Mezuak zein bestelako euskarriak gaztelaniaz bidali zitzaizkiela salatu zuten hainbat ikaslek zein irakaslek:

kontuan hartzen ez dela salatu dute. Izan ere, egun egiten diren deialdiek hurrengo urteetarako eskaintza baldintzatzen dute eta bestalde, euskaraz eskaintzen diren ikasgaietarako irakasleen plazek hizkuntza eskakizuna izan arren, maiz gertatzen da aldi baterako lanpostu horiek betetzeko euskararen ezagutzarik duen hautagairik ez egotea. Hori dela eta, euskaraz egiten den eskaintza asko gaztelaniaz izaten dela salatu dute ikasleek.

652-2022 dosierra

“Uztailaren 5ean, I/190/2022 ebazpenaren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko

763-2022 dosierra
“Donostiako UPA BHI (Peñaflorida Institutuan) D eredu (zenbait) ikasleei banaturiko ordutegia gazteleraz dago (aste egunak, atsedeen ordua, e.a)”.

229-2022 dosierra
“Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako matrikulazioaren baitan Ikasgunean egiteko eskatu diguten inkestako galderetako erantzun batzuk gaztelaniaz agertzen ziren. Gainera, inkestako galdera batzuen idazketa ez da erabat zuzena”.

Hezkuntza Sailaren arreta telefonikoa euskaraz ezin jaso izana salatu da. Zenbaitetan, Hezkuntza Sailak arreta hori eskaintzen duten langileekin hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen gaineko lanketa egiteko konpromisoak hartu ditu. Hori horrela izanik ere, herritarrari euskarazko arreta jasotzeak eragin ahal dizkion atzerapenek haien hizkuntza hautua baldintzatu izan dute.

915-2022 dosierra
“Arabako hezkuntza delegaritzara, 945017200 telefonora, deitu dut gaur 11:19an kontsulta bat egiteko. Ni euskaraz hasi eta emakumeak erderaz erantzun dit: “Mi compañera te responderá mañana, pero no nos vuelvas a insistir”. Modu txarrean erantzuteaz gain, gaztelaniaz. Ez da lehen aldia.”

952-2022 dosierra
“Donostiako Hezkuntzako Ordezkaritzatik baimen kontu bat dela-eta dei bat jaso dut, bertako langileak hitz bat bera ere ez du euskaraz hitz egin. Telefonoaren deia intzidentziaren azalpena idatziz jaso dut, eta nahiz eta jakinarazpenaren eredia bi

hizkuntzatan egon, langileak eredia betetakoan gaztelania erabili du bietan”.

2022ko abenduan Hezkuntza Saileko arduradunek egindako bilera batean Sailburuordeak informazioa gaztelaniaz ematea salatu zuten ikastetxe ezberdinetako arduradunek.

1030-2022 dosierra
“Hezkuntza lege berriaren inguruan, ikasle zaurgarrien eta beraiei gorde beharreko plazen inguruan bilera bat izan zen Hezkuntza Sailburuordearekin, Begoña Pedrosarekin. Gu gure ikastetxeko ordezkari gisara joan ginen, zuzendaritzako bi kide. Bileran hasi eta segituan Pedrosa sailburu ordeka bileran gazteleraz ematen hasi zen, gai teknikoak zela eta gaztelaniaz egingo zuela arrazoituz. Ez zaigu batere normala iruditzen eta guk ez dugu hau onartuko. Euskararen etxea izan beharko lukeen instituzioak euskaraz ez egitea bilera onartezina dela iruditzen zaigu”.

Irakaskuntzarako sortzen diren aplikazio edo web-guneetan ere euskara hautatzeko aukera izan arren, uneoro gaztelania lehenesten dela salatu izan dute irakasleek. Ondorioz, euskara erabili nahi izanez gero hizkuntza aldatzen ibili behar da uneoro.

Euskal Herrian master oso gutxi egin daiteke euskaraz, eta gainera, zaila da, merkatuaren logikari soilik jarraituz gero, master horiek aurrera egin dezaten lortzea.

Egoera bitxi baten aurrean gaude, beraz. Alde batetik, ikasleek graduoko ikasketak egiteko geroz eta gehiagotan aukeratzen dute euskarazko adarra. Hori horrela bada ere, bestetik, bide hori ia guztiz eteten da graduondoko ikasketetara iristen direnean. Ikasketok lan



Oposizio lehikaeta batean Hezkuntza Sailetik jasotako gutuna, gaztelania hutsean.

munduarekin lotura zuzena izateaz gain, ezinbesteko bidea da doktoregorako, hau da, ikerketarako. Hortaz, euskaraz garatzen den ikerketa garrantzitsua dela uste badugu, ikasleek graduondoko ikasketak euskaraz egiteko aukera izatea lehentasunezko gaia izan beharko litzateke.

Lanbide Heziketari dagokionean, euskarazko eskaintza ez da aurrerapauso nabarmenik egin. Horrela, Oinarrizko Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza edo aukera falta nabarmentzen dute ikasleek. Euskarazko eskaintza askoz urriagoa izateak (batez ere Oinarrizko

Lanbide Heziketan) D lerroetatik datozen ikasleak ere Lanbide Heziketan gaztelaniazko formakuntzara pasatzea eragiten du. Horri lotuta, 2 HE duten irakasle plaza gehiago atera diren arren, oraindik orain ez dira sako-neko neurriak hartu euskarazko irakaskuntza zabalduz joateko. 2022an estabilizazio prozesuekin, Lanbide Heziketako hainbat lanpostu egonkortu ziren eta horietan euskararen ezagutza egokia ez ezartzeak, etorkizunean ere euskarazko eskaintza mugatu dezake.

988-2022 dosierra

“Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren egonkortzerako merezimendu lehiaketa deialdia egin zuen urrian. Lanpostuen erdiek ez dute nahitaezko euskararen ezagutzarik ezarrita. Horrek, etorkizunean euskarazko Lanbide Heziketako lerro gehiago ireki ahal izatea oztopatuko du. Gainera, aurten izango den lekualdatze-lehiaketan gaztelaniazko profila duten lanpostuak euskararen ezagutza akreditatuta ez dutenei soilik eskaini zaie”.



06

**Udalak eta
herriko etxeak**

Ipar Euskal Herriko herriko etxeetan euskararekiko hainbat engaiamendu hartu diren arren, herriko etheen egunerokoan euskarazko zerbitzuak eskaintzeko oztopoak daude, noiznahi lege babes eta aitortza faltatik haragoak ere. Izan ere, hizkuntza-politikarako neurriak askotan kultura ataletan edo itzulpengintza ataletan soilik lantzen dira eta horrek ezinezkoa egiten du herriko etxearen gainerako atal eta sailetan ere euskararen aldeko engaiamendu hori praktikan jartzea.

Horri lotuta, Baionako festetan komunikazio departamentutik interneteko hainbat euskarri frantses hutsean argitaratzen ziren arren, komunikazio atalarekin gaia bideratu ostean, hurrengo urtean webguneak eta gainerrako euskarriak euskaratzeko aurrekontua izatea erabaki dute. Izan ere, hizkuntza-politikako zerbitzuetatik itzulpen guztiei aurre egin ezin zaienez, arlo bakoitzeko aurrekontuetan euskarazko informazioa eskaintzeko beharrezkoak diren baliabideak aurrekontuetan sartzea beharrezkoa izaten ari da.

906-2022

“Herriko aldikaria elebiduna izan behar zelarik, azken momentuan bakarrik frantsesera argitaratzea erabaki du auzapezak, eta herriko bi taldek euskaraz idatzi testuak zentsuratuak izan dira. Nahiz eta Herriko Kontseiluan salatu dugun, ez da gure salaketa kontuan hartu”.

483-2022

“Baionako Herriko Etxeak euskara eta gaskoina babesteko engaiamendua hartzen badu, herritarrei informazio garrantzitsua helarazten dielarik, euskara eta gaskoina ere baliatu behar litzuke. Alta sistematikoki frantsesez bakarrik igortzen ditu informazioak, euskaldunon eta gaskoien hizkuntza eskubideak urratuz.”

Herriko etheen zerbitzu turistikoetan ere, euskarazko arreta eta informazioa eskaintzeko baliabideak falta dira.

907-2022

“Urriaren 9an Hendaiako Abadia jauregian izan ginen. Euskaraz egin nahi genuen bisita baina inork ez zekien euskaraz (ez gidak ez harrerakoak...). Bertako enplegatu baten ahotik mespretxua jaso genuen euskaraz aritu ginenean. Gure herrian arrotz sentitu ginen”.

Nafarroako Foru Erkidegoko udalen kasuan, 2022an legeak ezarritako eremu misto eta ez-euskalduneko udalei zuzendutako kexak jaso ziren batik bat. Izan ere, hainbat udalek ez dute ia kontuan hartzen euskara eguneroko informazioan, arretan edo bestelako eskaintzan. Are gehiago, euskarazko zerbitzuak eskaintzeko neurriak hartzen dituztenean, alderdi eta sindikatu batzuek epaitegiei helarazi, eta EAEn bezala, udalek hartutako erabakiak baliogabetu dituzte. Helegite eta epai horiek euskararen ezagutzari lotutakoak dira. Hortaz, Nafarroako lanpostu publikoen deialdietan, euskararen ezagutza baloratu ere ez zen egin urte osoan izandako ehundaka deialditan.

920-2022

“Urriaren 11n Gardeko Udalak, egonkortze eta finkatze prozesuen barruan, administrari laguntzaile eta zerbitzu anitzetako enplegatuen deialdia egin zuen lanpostu horiek merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko. Euskararen ezagutza ez zen kontuan hartu (ezta merezimendu bezala), beraz, Gardeko Udalak ez du zerbitzuak euskaraz eskaini ahal izateko inongo neurririk hartu.”

Nabarmentzekoa izan zen Alesbesko Udalak 2022ko martxoan udal horretako Berdintasun sailetik euskaraz



Eremu ez-euskaldunean egotea argudiatuta Alesbesko Udalak zentsuratutako kartela.

eta gaztelaniaz publikatutako kartela zentsuratzeko hartutako erabakia eta jarrera. Izan ere, udal gobernua adierazitakoaren arabera, udalaren izenean ezin dira ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz) idatzitako kartelak publikatu, Alesbes herria legeak ezarritako eremu ez-euskaldunean kokatzen delako.

Bestalde, udal batzuek euskararen ordenantza berrietan atzerapauso nabarmenak onartu dituzte, esaterako, Burlatak edo Zizur Nagusiak. Erabaki horien ondorioz, hurrengo urteetan euskarazko zerbitzuak bermatzea nekezagoa izango da.

Hainbat udalerritako hizkuntza-paisaian, euskararen presentzia oso urria izan zen 2022an. Seinaletik eta kartel berriak hainbatetan gaztelania hutsean jartzen dituzte, seinale zaharretan euskara ere jartzeko eskatu izan denean, baliabideen amortizazioagatik seinaleak hautsi arte ez direla berriak jarriko erantzun izan da.

Nafarroako udalen euskarazko kultur eta aisiarako eskaintza falta nabarmendu zuten 2022an herritarrek.



Zizurgo bide-seinalea eta Iruñeko Udalaren kartela, gaztelaniaz.

Halaber, herritarrei zuzendutako hainbat kartel, ohar edo iragarkitan ere gaztelania besterik ez da erabili.

810-2022 dosierra

“Lizarrako Udalean galdetu dut bisita-antzeztuak zein hizkuntzatan izango diren, eta gaztelera izango direla erran didate udaletik.”

173-2022 dosierra

“Antsoingo Udalak martxorako iragarri dituen kultur jardueretatik (9 edo), bakarra da euskaraz (7 urtetik aurrerakoentzat). Urtarrilean eta otsailean ere desoreka nabarmena da.”

299-2022 dosierra

“Egesibarko Udalaren 2022ko udaberriko kultur programazioan emanaldi bakarra dago programatuta euskaraz. 14.000 eurotik 13.250€ gaztelaniaz antolatutako emanaldietara bideratuko dira eta 3 urteko haur antzerki bakarria egingo da euskaraz (850,00€).”

2022ko abenduan, Behatokiak, Iruñeko Euskalgintza osatzen duten eragileekin batera, “Udalak nirekin euskaraz” kanpaina martxan jarri zuen. Kanpaina horren bi-

dez, herritarrek Iruñeko Udalarekin dituzten harremanetan, euskararen erabilera nola mugatzen zaien erakutsi nahi zen eta, horretarako, Behatokiaren bidez, udalak

hizkuntza eskubideekiko zuen begirune eza edo zerbitzuak euskaraz jasotzeko dauden ezintasunak agerian jarri ziren.

Ondoko irudian ikus daitezke ateratako ondorioak, herritarrek helarazitakoak oinarri.

Euskal Autonomi Erkidegoko udal-letan, herritarrek helarazitako kexen ondorioz batzuetan zuzenketak egiten diren arren, hainbat udal-letan ez dute behar bezala zaintzen eskaintzen dituzten zerbitzuetan edo zabalitzen duten informazioan udalean ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzen direla.

Ondorioz, hainbat zerbitzutan jartzen diren oharak, kartelak zein mezuak gaztelaniaz bidaltzen zaizkie herritarrei.



“Udalak nirekin euskaraz” kanpainen ateratako ondorioak.

390-2022 dosierra

“Gasteizko Udalera e-mail bat idatzi nuen kontsulta bat egiteko. Euskaraz idatzi nien eta erantzuna gaztelania hutsez jaso dut gaur.”

969-2022 dosierra

“Bilboko Udalaren hondakinen kudeaketa zerbitzura e-posta bat bidali nuen euskaraz eta horri erantzunez jaso dudun e-posta gaztelaniaz bidali dit udalak.”

Iragarkietan zein udalak antolatutako edo laguntzaile diren jardueretan ere, ez dira beti zaintzen hizkuntza-iriz-pideak eta ondorioz, euskararen presentziarik gabeko jarduerak edo informazioa aurkitu izan dute herritarrek.

814-2022 dosierra

“Irunen, Nafarroa hiribidean, “Txingudi korrika” lasterketa dela eta AUIFek jarri dituen oharrak gaztelania hutsean daude, ez dago euskararen arrasorik”.

Udaletatik antolatzen diren aisiari lotutako hainbat jardueretan ere, euskararen presentzia edo euskarazko eskaintza ez zela behar bezala bermatu ikusi zuten herritarrek zenbaitetan.

997-2022 dosierra

“Gabonetako argiak pizte ekitaldian “arratsalde on” eta “eskerrik asko” baino ez zituen esan euskaraz Laudioko alkateak, espainol hutsez aritu zen ekitaldian. Adibide kaskarra agintariena.”

161-2022 dosierra

“Metallica taldeak Bilbon emango duen kontzertuaren kartelak gaztelania hutsean argitaratu dira. Kontzertuak Bilboko Udalaren babesletza du baina udalak ez du erreparatu



euskaldunen hizkuntza eskubideetan.”

Udaletatik egiten den aisiari lotutako eskaintzan, hainbat herritarrek jakinarazi dute ezen, ikastaro, hitzaldi zein bestelako jardunaldiak euskaraz iragarrita egon arren, gaztelaniaz egin direla.

808-2022 dosierra

“Donostia kulturak antolatutako ikastaro batean izena eman dut, ikastaroa euskaraz ematekoa zen, izena eman ondoren ikastaroa ematekoa zen kultur etxetik erantzuna jaso dut bertan behera gelditu dela jakinaraziz. Nire kexaren arrazoia da alde batetik jasotako erantzuna erdara hutsean izan delako, eta bestetik, iruditzen zaidalako ez dela nahikoa egiten ikastaroa euskaraz jaso ahal izateko, ez da lehen aldia euskaraz ematekoa den ikastaro bat bertan behera gelditzen dela eskaera nahikorik ez dagoelako, zein da gutxieneko kopuru hori?, ez al da beharrezkoa zerbait gehiago egitea euskarazko ikastaroak atera daitezen? gainera ikastaroa euskaraz jaso nahi izategatik ikastaroa egiteko aukerarik gabe gelditu naiz erdaraz emateko aukera bete egin delako, hurrengoan zer egin beharko nuke?, ikastaroa erdaraz emateko aukeran izena eman?”



Bilboko Udalaren informazio orriak elebitan izan arren, gaztelaniaz bidali ziren e-postak. Irunen eta Bilbon jarri ziren hainbat kartel gaztelania hutsean zeuden.

985-2022 dosierra

“Maria Cristina zubiaren ondoan, autobus geltokiaren gaineko zabalgunean Gabonetarako jarri den umeentzako jolaslekua -txirristra- goitik behera espainol hutsean ari da: bai idazki, bai monitore. Dirudienez, Murtziatik ekarri omen dute “pack-a”. Sinestezina eta onartezina. Ume euskaldunek aisialdian erdaraz egitea sustatzen ari dira...”

Udalen eta udaletako enpresa publikoen plantilla organikoetan hizkuntza-eskakizunen esparruan neurri eragingarriak hartu ez izanak lotura zuzena du herritarrei ematen zaizkien zerbitzuetan euskara erabiltzeko dauden zailtasunekin.

254- 20222 dosierra

“Bilbobuseko gidari bati “bi txartel” eskatu nizkion eta “erderaz egitea” esan zidan. “Bera ez dagoela behartuta euskaraz egitera”. Kexa ofiziala jarri nuen Bilbobuseko aplikazioaren bidez eta gaurko egunez 4 hilabete beranduago ez dut erantzunik jaso nahiz eta twitter bidez bitan esan didaten erantzun bat emango zidatela.”

Adibidez, TUVISA autobus zerbitzu publikoan lanpostuen %37 inguruk soilik du euskararen nahitazko eskakizuna.

446- 2022 dosierra

“Gasteizko autobus publikoa hartzera joan gara gaur emaztea eta bi ume txiki. Sarreran galdera egin diot gidariari: “musukoa derrigorrezkoa da? “No te entiendo, háblame en español” erantzun dit. Galdera erdaraz errepikatu diot eta “si, es obligatorio” erantzun dit. Garraio



Aisialdiari lotutako kartela, gaztelania hutsean.

publikoaren erabiltzaileei hain oinarrizko informazioa euskaraz emateko gaitasunik ez izatea Gasteizko Udalak euskaldunok kontuan noraino hartzen gaituen adibide lotsagarria.”

Horri lotuta, 2022ko otsailean jendartearen haserrea sortu zuen epai batek. Izan ere, epaile batek euskara “zaila” dela argudiatu zuen Laudioko Udalaren hizkuntza-eskakizun bat saihesteko. Ondorioz, beste behin, zerbitzua eman behar dutenekiko neurriak hartzea epai-tegietako erabaki murriztaileen azpian utzi zen.

Udalek azpikontrataturako zerbitzuei dagokienez, plegetan hizkuntza-irizpideak ezarrita dituzten kasuetan

ere, zerbitzua emango duen enpresari ez zaio behar bezala jakinarazten hizkuntza-betebeharrak dituela, edota, beste zenbaitetan, ez da zerbitzuko hizkuntzarekiko jarraipenik egiten.

564-2022 dosierra

“Gaur bertan, uztailaren 6an, Barakaldoko udaletxera joan naiz eta segurtasun zerbitzuko bat oldartu zait euskaraz egin nahi izan dudalako NA eskatu didanean. Nik instituzio publiko batean euskaraz artatua izateko eskubidea defenditu dut. Hau izan da bere erantzuna: “cuando hablas a una persona, por educación, si no te entiende, le tendrás que hablar de una forma que te entienda no?” Nazkatuta nago egoerarekin, ez baita lehen aldia gertatzen zaidana...”

870-2022 dosierra

“Gaur, urriak 21, Santutxuko Basarrate plazan Bilboko Udalak gazteentzako antolatutako ekintza bat egon da (dantza modernoa). Gazteekin (gazteak baino, umeak ziren) dantza egiten zegoen irakaslea erdera hutsez aritu da beraiekin eta, jakina, erabiltzen ari zen musika ere ez zen euskeraz. Lotsagarria da udalak gazteei begira antolatzen duen ekintza bat gazteleraz izatea.”

257-2022 dosierra

“Erandioko kiroledegian euskaraz egin badut ere, une oro euskaraz, erdaraz egin dit arreta harrerakoak.”



07

Kultura, aisia eta kirola

Aisiaz gozatzeko eskubidea ezinbestekoa da herritarren ongizate eta osasun mentalerako, beraz, aisian inbertitzen dugun denbora kalitatekoa izan dadin, herritarren hizkuntza eskubideak espazio horietan guztietan kontuan izatea, gizartearen ongizatearen alde egitea da.

Kultura, aisia eta kirola gaur egun zerbitzu publikoetan zein eremu pribatuan eskaintzen direnez, ezinbestekoa da alde guztietatik gizarte erantzukizunez jardutea. Horretarako, Euskal Herrian zehar antolatzen diren jarduerak puntual edo finkoetan, euskarazko jarduerak antolatu beharko dira, bai eta herritarrek aisialdia euskaraz gozatu dezaten aukerak sortu ere.


Bestalde, aisaldirako jarduerak iragartzean erabilitako hizkuntza-paisaia zein megafonia edo bestelako tresnen bidez zabalduko informazioan euskararen espazioa urriagoa izaten da, herritarrek Euskararen Telefonora bidalitako hainbat intzidentziaren arabera.

I 15 dosierra

“Baluarteko ia seinalizazio guztia gaztelania hutsean dago (eta euskaraz dagoen pixerra letra txikiagoan noski). Lehenbiziko aldia da eta enaiz batere eroso sentitu, arrotz sentituarazi naiz.”

555-2022 dosierra

“Lotsagarria Live Nation San Mamesko Bilbao Bizkaia Rock Day kontzertuetan euskarari ematen ari zaion tratamendua. Euskara eta euskaldunak ez gara existitzen, ala? Eta gainera instituzio publikoen, Bizkaiko Aldundiaren eta Bilboko Udalaren laguntza du jaialdiak.”



Nafarroako Gobernuaren aplikazioa, gaztelania hutsean; Last Tour BBK Live jaialdiko edalontzietan, euskararako itzulpena trakets; Espainiako Gobernuaren iragarkia, gaztelania hutsean; Live Natioan kontzertuari dagokion oharra, gaztelania hutsean.

Kultur eskaintza

Museo, erakusketa eta hainbat jardunaldi kulturaletan euskararen presentzia ez da oraindik behar bezala bermatzen, eta zenbait tokitan, gaztelania edo frantsesezko informazio edo jarduerak askoz zabalagoak izaten dira.

Halaber, kontuan hartzekoa da Euskal Herriko museo edo erakusketa batzuetan bisita gidatuak euskaraz egi-

teko aukera gutxiago izaten dela. Zenbaitetan ordu-tegi eskaintza murriztagoa izaten da euskaraz, eta bestetan, euskarazko taldea osatzeko gutxieneko parte hartzea eskatzen zaie erabiltzaileei. Horrela, kanpotik etorritako bisitariengatik, erdarazko taldeetan parte hartu behar izaten dutela salatzen dute herritarrek.

929-2022 dosierra

“Atzo Orreagan izan ginen, eta tour gidatua egitea erabaki genuen, hori baitzen modu bakarra Siloa eta museoa ikusteko. Galdegin genuen ea bazen euskarazko tourrik, eta 25 pertsonako taldeak baino handiagoentzat soilik zen. Gure herrian zerbitzurik ez euskaldunoi.”

461-2022 dosierra

“Zenbat kolore hainbat gustu” lelopean antolatu du aurten Iruñeko Udalak haur, nerabe eta gazteentzako udako eskaintza. Zortzi hiri kanpaldi antolatu ditu eta bakarrean sortuko dituzte euskarazko taldeak.”

buruzko jardunaldiak egiten ari dira. Kartela gaztelania hutsean atera da Nafarroako berezko hizkuntza alde batera utziz. Horrelako ekimenetan euskarak presentzia beharko luke.”

502-2022 dosierra

“Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan aurre-matrikula eta matrikula egiteko garaian ikusi dut online zerbitzua gaztelania hutsean eskaintzen digutela herritarroi, bai webguneko informazioa, bai matrikulatzeko dokumentazioa. Telefonoz ere ez dago beti bermatzerik euskarazko komunikazioa. Bestalde, Tailerren eskaintzan ez dago euskaraz kurtsatzeko inolako aukerarik, nahiz eta batzuetan tailer berak astean zehar hirutan eskaintzen den, goizez, arratsaldez eta gauez.”

537-2022 dosierra

“Gasteizko Udalaren udako haur-parkea programaren barruan 9 ikuskizun izan dira egun hauetan, 5 hitzik gabe diren arren, 3 gaztelaniaz dira eta bakarra dugu euskaraz uztailearen 2an. Gero haurrek euskaraz ez dutela egiten esango dute.”

2022an, aurreko urteetan bezala, Nafarroako liburutegien eskaintzarekiko eta zerbitzuekiko kezka azaldu zuten Euskararen Telefonoko erabiltzaileek. Izan ere, oraindik orain, liburutegietako lanpostuetan ez da euskararen ezagutzarik eskatzen, eta horrek erabiltzaileei ematen zaien arretaz gaindi, liburutegien beraien urteroko jardueren eskaintzan euskarazko eskaintza urria edo eskaintza eza eragiten du. Gainera, baliabideak, informazioa zein bestelako tresnak euskaraz ere gaitzeko ezintasun nabarmenak daude.

Beste zenbait kasutan, herritarren arabera, jarduera euskaraz iragarrita egon arren, baten batek euskara ez duela ezagutzen argudiatuta, ekimenak erdaraz egin izan dira.

Dena den, orokorrean, euskarazko eskaintza falta edo eskaintza urriagoa izatearen arazoa nabaria da. Eskaintza-parametroetatik harago, eskaintza kulturaren parte izan beharko litzateke euskarazko jarduera kopuru bera bermatzea, bestela herritarrek nekez egingo baitute euskaraz kontsumitzearen aldeko hautua.

632-2022 dosierra

“Iruñeko Planetarioan ez da uda osoan saiorik euskaraz eskaintzen. Ikasturtean zehar ere galdetu egin diet eta, saioaren bat euskaraz eskaintzeko, nik bildu behar nuen 20 baino gehiagoko lagun taldea (gerora, are talde handiagoa izan behar zela esan zidaten). Nola izan daiteke? Erderaz saio asko eskaintzen dira. 3 eguneko! Euskaraz, deus ez! Nire semearen astronomia grina erderaz eskaini behar? Bestela, grina frenatzen ari naiz. Ez da bidezkoa. Ez al da publikoa, bai behintzat neurri handi batean Planetarioa?”

791-2022 dosierra

“Irailaren 11tik 26ra, Nafarroako Gobernuak bultzatuta, Memoria historikoari

“Jarduera euskaraz iragarrita egon arren, ekimenak erdaraz egin izan dira”

822-2022 dosierra

“Nafar guztion zerbitzura omen dagoen liburutegian, denon sosekin ordaintzen den horretan, irailetik urrira bitarteko programazioan 61 jardueretatik 4 besterik ez euskaraz. Hiru ingelesez eta gainontzekoak gaztelaniaz.”

Nafarroako Gobernuak berak onartzen du legeak ezarritako eremu euskalduneko liburutegietan ere ez dela euskarazko arreta eskaintzen ari. Are gehiago, plazen derrigortasunari lotzeaz gaindi, aldi baterako kontratazioetako lan-poltsetan euskararen ezagutzarik ez duten langileak kontratatu behar izaten dituztela aipatzen du. Horrek guztiak ondorio nabarmenak ditu herritarrek kultura zerbitzu horiek gaztelaniaz erabili behar dituztelako.

373-2022 dosierra

“Gaur alaba txikiena Berako liburutegian izan da eta, liburu baten gaineko informazioa eskatu dionean, “no te entiendo, no hablo euskera” erantzun dio liburuzainak. Zur eta lur geratu naiz. Nola liteke Bera bezalako herri euskaldun batean, bertako ume, gazte

zein helduek erabiltzen duten zerbitzu publiko hori euskaraz jasotzeko aukerarik ez izatea? Nola onartzen du Nafarroako Gobernuak Berako liburuzaina euskalduna ez izatea? Horrela zaintzen ditu Nafarroako Gobernuak euskal hiztunak? Egoera hau albait azkarren konpontzeko eskatzen diot Nafarroako Gobernuari. Begirunea eta errespetua merezi dugu.”

Pantailak euskaraz, eskaintza eza

Hego Euskal Herriko zinema komertzialetan euskararen presentziarik ez da orokorrean. Pantailak Euskaraz herri ekimenaren bidez egindako neurketen arabera, Euskal Herriko hiriburuetakoina zinema komertzialen euskarazko eskaintza emanaldi guztien %1,99 (euskarara bikoiztuta edo euskarazko azpidatziakin) soilik izan zen. Izan ere, 2022 osoan zehar ez zen euskarazko fikziozko film bakar bat estreinatu, eta horrek eragina izan zuen zinemetako eskaintzan. Gaztelaniaz, aldiz, 751 film estreinatu ziren Hego Euskal Herrian. Gainera, kontuan izan behar dugu %1,99ko eskaintza hori haur txikiei eskainitakoaren barruan kokatzen dela eta, beraz, gazte zein helduentzat ia ez da euskarazko aukerarik. Azkenik, kontuan izan behar da kasu batzuetan euskaraz bikoiztutako film gutxi batzuk izan arren, zinema komertzial horietan gaztelaniaz emititzeko hautua egiten dutela.

164-2022 dosierra

“Ainbo” filma euskarara itzulita dago baina Florida zinemetan ez dute euskaraz eskaintzen. Zergatik ez duzue filme hau euskaraz jartzen? Ulergaitza. Euskaraz bizi nahi dugu eta gure semek aisialdia euskaraz gozatzeko eskubidea dute.



Pantailaldia kanpaina. Argazkiak: Pantailak Euskaraz.

757-2022 dosierra

“Emanaldiak jatorrizko bertsiotan gaztelaniazko eta ingelesezko azpitoluekin» dio Donostiako Zinemaldiko eskuliburuak; aurtan ere lotsarik gabe galarazten zaio euskaldunari sarrera Sail Ofizialean.”

“ Gazte zein helduentzat ia ez da euskarazko aukerarik ”

Udalek eta herriko etxeek euskarazko produkzioak emititzearen aldeko borondatea erakusten den arren, askotan eskaintza berri ezak horien emanaldiak mugatu edo baldintzatu dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako araudiek euskarazko zinema eta ikus-entzunezkoen aldeko neurriak jasotzen dituzten arren (EAEko 10/1982 legean edo Nafarroako 18/1986 legean), erakundeetatik urrats gutxi egin izan dira bikoizketa edo azpitoluen alde, eta ondorioz, bildutako datuez harago, herritarrek kexa ugari helarazi zizkiguten.

Bestalde, ikus-entzunezkoen alorrean Behatokian jasotako kexa gehienek zinema plataformetan euskarazko eskaintzarik ez egotearekin zuten lotura.

Netflix, Rakuten TV, HBO, Amazon Prime bezalako ikus-entzunezko plataformetan euskarazko edukien presentzia bermatu dezaten eskatu zuten herritarrek.

136-2022 dosierra

“Netflix Españaren katalogoan dauden hainbat film eta telesail euskarara bikoiztuta daude euskaldunon diru publikoz (ikus zerrenda). Netflix Españari eskatzen diot eduki horien euskarazko bertsiok

banatzaileei exijitzeko eta txertatzeko plataforman.”

318-2022 dosierra

“HBO plataformak ez du euskaraz bikoiztutako ez filme ezta serierik momentu honetan, nahiz eta bertan dauzkaten asko dagoeneko euskaratuak izan diren.”

563-2022 dosierra

“Donostia Kirolak antolatuta (Udala), Real Club de Tenisen, haurrentzako Tenis ikastaroa, EUSKARAZ izan behar zuen eta gaztelaraz hitz egin du begiraleak denbora osoan, inongo azalpenik gabe. Ekainaren 27tik uztailaren 1era, goizez, 10:00etatik 11:30etara. 7-12urteko haurrentzat.”

Kirola

Kultura eta aisiarako beste eskaintza batzuekin batera, kirolak egungo gizartean pisu nabarmena du eta, beraz, erreferentziagune da jendarteko hainbat esparrutan. Kirol talde, federazio, edota kirolariei lotutako komunikazio jardueretan euskarari tokia egiteak hizkuntza eskubideekiko aitortzan lagundu eta euskararen erabileran zein prestigioan eragin dezake, gaztetxoengan bereziki. Halere, kirol munduko errealitatea oso bestelakoa da; kirolgune pribatuetan erdara erabiltzen da gehienetan (kirol saioak, kartelak, bezeroei helarazitako mezuak, iragarkiak...), eta kirolgune publikoetan ere, kirol saio edo jarduera gehienetan erdara erabiltzeko joera dagoela azpimarratu dute herritarrek. Egia da, bai, herritarren kexen ondorioz, batzuetan egoera zuzentzea lortzen dela, baina hainbatean errepikatzen dira antzeko goerak.

786-2022 dosierra

“Erandioko kiroldegietan ez dago umeentzako igeriketa ikastaroak euskaraz soilik egiteko eskaintzarik. Galdetuta kiroldegian erantzuna izan da zenbait monitorek euskara dakitela eta umeren batek euskaraz egin nahi badu, aukera daukala.”

Iragarkiak, kirol-guneetako oharrak, kiroldegietako arreta...

33-2022 dosierra

“Artunduaga kiroldegiko leihatilara joan ginen izapide batzuk egitera. Une oro euskaraz zuzendu bagintzaizkio ere bertako langileari, berak gaztelaniaz erantzun zigun eta momentu baten gaztelaniaz egiteko ere esan zigun. Ez zegoen beste inor eta izapideak egin gabe ez uzteko azkenean gaztelaniaz egin behar izan genuen. Hau da, kasu horretan, beste behin, Basauriko Udalaren mendeko Basauriko Kirolaren Udal Erakundeak, Basauriko Udalaren erakunde autonomoa denak, gure hizkuntza eskubideak urratu zituen.”

150-2022 dosierra

“Barakaldoko La Sesarreko kiroldegi publiko-
ra kexa bat euskaraz bidali ondoren, beraien erantzuna gaztelania soilean izan da eta hau onartezina da. Elebakar nahi izatekotan eta nik euskaraz bakarrik idatzi badut, gutxienez euskaraz erantzutea litzateke proposena.”

Kirol talde eta federazioei dagokienez, hainbat izan dira 2022an jasotako intzidentziak; horietan guztietan euskara ez dela erabili salatu da:



Berangoko Udalaren iragarkia, gaztelania hutsean.

189-2022 dosierra

“Nafarroako Irristaketa txapelketa ikusten egon naiz Txantreako Kirol Elkartean eta mikrofonotik ematen zuten informazio guztia erdaraz zen.”

408-2022

“Baskoniaren abonatu naiz. Gaur “Súmate a la rebeldía azulgrana” kanpaina berria aurkeztu du eta web orriari kanpainaren gaineko informazio guztia gaztelaniaz baino ez dago. Euskal hiztunak bigarren mailako herritarrak gara Baskoniarentzat, nonbait.”

572-2022 dosierra


“Deportivo Alaves futbol taldearen euskarazko twitter kontuan ez da informazio guztia euskaraz ematen. Oraintxe bertan taldearen aurreneboraldiaren egutegia gaztelaniaz baino ez dago bertan.”

844-2022 dosierra

“Automobilismo zalea naiz eta berriki ikusi dut Euskadiko Automobilismo Federazioaren web orria gaztelaniaz baino ez dagoela. Lehen euskaraz ere bazegoen eta orain informazio guztia gaztelaniaz baino ez dago, euskara desagertu egin da. Zein polita geratzen den “euskal” izena eta gero euskara eta euskaldunok horrela tratatu. Atzerapausoa da eta ez da onargarria.”

873-2022 dosierra

“Igandean Zaldiko, Magna eta Noticias de Navarrak antolatu eta babestutako Zubiri-Pamplona lasterketa ikusten izan nintzen Iruñean. Hizkuntza trataera lotsagarria izan zen. Megafoniatik dena gaztelania hutsean, euskara ez zen ezertarako erabili. Albaceteko lasterketa bat izan zitekeen.”



Donostiako Triatloia iragartzeko Facebook orrialdean, euskararik ez.

1065-2022 dosierra

“Abenduaren 23an hasita Osasunak antolatutako Eskolarteko futbol txapelketa jokatu dute 200dik goiti neska-mutikok Taxoaren. Tartean D ereduko ikastetxeetako hainbat talde egon dira. Megafonia bidezko mezu bakar bat ere ez genuen aditu euskaraz. Partiden emaitzak, hurrengo jardunaldiko partidak, partidak dirauen bitartean jokalariek eta entrenatzaileak baino ez direla zelaian egoten ahal... eta horrelako informazioa da megafonia bidez eman zutena. Hurrengo edizioetan mezuak euskaraz ere zabaltzea eskatzen dugu.”



EKFB kartela, gaztelania hutsean.



08

Eremu

sozioekonomikoa

Interes orokorreko zerbitzuak

Kontsumogai eta zerbitzu batzuk oinarrizkoak dira herritarren egunerokoan. Horiekin batera, negozio bolumena kontuan hartuta, betebeharrak bereziak izan beharko lituzkete enpresek. Bestalde, enpresa horiek irudi zehatza proiektatzen dute, eta, beraz, erantzukizunez jokatu beharko lukete gizartean duten garrantzia kontuan hartuta. Hartara, hizkuntza eskubideei aitortza egiteak eraldatzen lagundu dezake.

Kontuan izan behar dugu, Euskal Autonomia Erkidegoan, interes orokorreko zerbitzu horiek gaur-gaurkoz lege betebeharrak zehatzak ere badituztela. Dena den, lege betebeharrak horiek ez betetzeak ez die inolako ondoriorik eragiten.

Horri lotuta, 2022ko ekainean, Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzaile eta erabiltzaileen legea aldatzeko aurreproiektuari ekarpenak egin zizkion Behatokiak, bai eta egoerari buruzko azterketa sakona egin ere. Legebiltzarraren 2003ko legea oinarri, lege berriak ez du inongo urrats berririk planteatzen. Are gehiago, hainbat atzerapauso ere planteatzen ditu kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunen eskubideekiko (2003ko legeak jasotako hainbat alderdi kendu dituzte). Ondorioz, hizkuntza eskubideen zehar-lerrotasuna bermatzeko eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideetan hizkuntzaren ikuspegia txertatzeko proposamenak egin ziren.

Horiek horrela, gogoan izan behar da 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren arabera, hizkuntzen arteko berdintasun-printzipioa oinarri, hizkuntza komunitate orok duela eskubidea bere hizkuntzaren erabilera jarduera sozioekonomiko guztietan xedatzeko, besteak beste, produktu eta zerbitzuen publikitatean, errotulazioan, seinaleztapenetan, segurtasunarekiko argibideetan eta abar. Horrela egiten ez denean, herritarren osasun eta

segurtasun-babeserako zein informaziorako eskubideak urratzen baitira, besteak beste.

Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko kontsumitzaile eta erabiltzaileen araudietan ez dira hizkuntza eskubideak zehazten, beraz, babes juridikorik ez izateak herritarren sektore horiekiko exigentzia maila apaltzen du. Gauzak horrela, herritarrek hizkuntza eskubideak errespetatzen dituzten enpresak izatea baloratzen duten arren, lege babes faltak frantsesa eta gaztelania eremu sozioekonomikoko hizkuntza nagusiak izatea dakar.

Energia hornitzaileak

Bezeroekiko arreta eta zerbitzu guztietan euskara ez da kontuan hartzen, eta lege betebeharrak duten eremuetan soilik eskaintzen dute informazioa euskaraz, bezeroak berriaz hala eskatuta gehienetan.

704-2022 dosierra
“I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak argindarraren mozketak-abisuak bidali dizkigu sms eta posta elektronikoko mezuen bidez. Aipatu mezuek gaztelania hutsean idatzirik daude, nahiz eta halakoak euskaraz jasotzeko eskubidea dugun.”

Hainbat kasutan, bezeroek jasotako kontratuak, baldintzen dokumentuak, fakturak zein gutunak gaztelania hutsean igortzen dira, bai eta legeak informazioa elebitan helaraztera behartzen dituzten eremuetan ere.

705-2022 dosierra
“Iberdrola Clientes SAU enpresarekin argindarraren hornidura kontratatu genuen eta hori euskaraz egin genuen. Aitzitik, etxean posta arruntaz jaso ditugun agiriak (kontratua eta horren baldintzak, eta helbideratze-agindua) gaztelania hutsean daude.”



Energia hornitzaileen mezu eta jakinarazpenak, gaztelaniaz.

554-2022 dosierra
“CHC energiak, argindar hornitzaileak, ekaineko faktura gaztelera hutsean bidali du. Orain arte bi hizkuntzatan bidali izan dute.”

Telefono bidezko arretari dagokionean, zenbait konpainiek arreta hainbat hizkuntzatan jasotzeko aukera eskaintzen dute, baina ez euskaraz.

11-2022 dosierra
“NATURGYren 900100251 telefonora deitu eta arreta hainbat hizkuntzatan jasotzeko aukera eskaintzen du, euskara ez dago horien artean.”

Bestalde, gasolindegietako hizkuntza-paisaian eta bertan dauden aplikazio zein gailuetan euskarazko mezurik ez dela izaten salatu dute herritarrek.

Telekomunikazio enpresak

Telefonia eta internet zerbitzuak eskaintzen dituzten enprekin euskara erabili nahi izateagatik dituzten arazo eta ezintasunen berri eman dute herritarrek 2022an ere.

Telefono bidez eskaintzen duten arretan edota eskaintzen berri bezeroei egiten dizkieten deietan, ez da euskarazko arreta kontuan hartzen. Are gehiago, zenbaitetan erantzun desagokiak ere jaso dituzte. Izan ere, Euskal Herrian egoitza duten konpainiak izan arren, arreta zerbitzuak beste toki batzuetan azpikontratatzan dituzte, eta arreta hori eskaintzen duten enpresei ez diete hizkuntza betekizunik eskatzen.

570-2022 dosierra

“Euskalteko bezeroa naiz. Etxeko telefono finkora deitu dute gaur 14:15ak aldera. Komunikazio hizkuntza aukeratzekoan, komunikazio oro euskaraz egiteko dugu eskatua. Euskaraz artatzeko eskatu diodanean “en Movistar no te hablaran en euskera” erantzun dit... Handik pare bat minututara beste dei bat jaso dut, oraingoan mutil bat izan da. Aurreko deiarri buruzko kexa ea non jarri behar dudan galdetu eta eskegi egin dit, ezer esan gabe”.

755-2022 dosierra

“Euskaltelen orrian agertzen den 900799225 telefonora deitu dut. 3 aldiz. Hiru alditan gaztelera erantzun didate eta euskaraz ez zuten tutik ere ulertzen. Deia moztu egin didate hiru alditan. Hori Euskaltelen”.



Euskara hautatzeko aukerarik ez, gasolindegian.



Telefono konpainiak bidalitako mezurak, gaztelania hutsean.

“ EAEn interes orokorreko zerbitzuek lege betebeharrak zehatzak dituzte, horiek ez betetzeak inolako ondorioz eragiten ez badie ere ”

Dendetako hizkuntza-paisaia, oharrak, gutunak, fakturak, kontratuak... gutxi batzuk besterik ez dituzte eskaintzen euskaraz, eta bezeroak behin eta berriz berriaz eskatu behar izaten ditu.

Iragarkietan eta etxeetara bidaltzen den publizitatean ere, enpresa gutxi batzuek hartzen dute kontuan euskarazko informazioa helaraztea. Gainera, zenbaitetan, euskarazko informazioa murriztagoa izaten da.

437-2022 dosierra

“Herenegun etxeko postontzian, Durangon, Vodafone-aren publizitatea jaso dut, erdara hutsean.”

Bestalde, 2022an nabarmentzekoa izan zen Apple bezalako enpresen euskara eta gutxitutako beste hizkuntza batzuekiko jarrera. Izan ere, munduko hainbat hizkuntza kontuan hartzen hasi diren arren, euskara oraindik ez dago sortzen dituzten sistema berrietan



Telefono konpainien iragarki eta mezuak, gaztelaniaz.

Yiddish hizkuntza gutxituak kontuan hartuko ditu, baina oraindik euskara kontuan hartu gabe jarraitzen du. Gure hizkuntza eskubideak kontuan har ditzan eskatzen diogu Apple konpainiari”.

Finantzak eta aseguru etxeak

Finantzak eta aseguru etxeek ere bezeroen arreta eta informazioarekiko betebeharrak zehatzak dituzten arren EAEn eta Nafarroan, bezeroekin euskaraz harremanetzeko eskubidea ez dute beti errespetatzen.

Erakunde batzuek ez diote bezeroari hizkuntza hautatzeko aukerarik eskaintzen, eta gaztelania edo frantsesa lehenetsia izaten dute bezeroekiko harremanetarako, dokumentaziorako eta sistema guztietarako.

701-2022 dosierra

“Triodos banketxetik e-maila bidali didate, Bilboko bulegoaren izenean, erdara hutsean, adierazteko tokiz aldatuko dutela. Inoiz erantzun izan dute Bilboko bulegoan euskaraz atenditzen dutela eta euskarazko materiala dutela, gezurrak sakatuz. Ea oraingoan zer asmatzen duten. Banketxe etiko direlako zerbait gehiago eskatzen diet. Eta euskaldun bezerook begirunez tratatzeari oinarrizko eta ezinbesteko deritzot. Benetan, ez dakit noiz arte izango naizen bezero. Bilboko bulegoaren bezerooi baino ez diguten bidali mezu hain sinple batean ere ez bagaituzte kontuan hartzen euskaldunok...Adierazgarria da, ezta? Eta etikoa?”

Bezeroek euskara harreman hizkuntza hauta dezaketenean kasuetan ere, zuzeneko arretan, telefono bidezko arre-

tan zein helarazten zaizkien mezu eta komunikazioetan, ez zaie hautu hori behar bezala bermatzen. Bulego batzuetan, adibidez, langile gutxi batzuek euskara jakiteak ezinezkoa egiten du bezeroak euskarazko arreta berdintasunez eta inongo atzerapenik gabe jasotzea.

405-2022 dosierra

“Laboral Kutxak Iruñeko Paulino Caballero kalean duen egoitzan egon naiz eta, kutxan zegoen pertsonak euskaraz ez zekienez, gaztelaniaz aritu behar izan dut.”

531-2022 dosierra

“BBVA Allianz seguruetako telefono arreta ezin izan dut euskaraz jaso.”

949-2022 dosierra

“Oraintxe deitu dut Kutxabank Aseguruaren 944019494 telefonora. Lehenengo 7:45etan eta bigarrenean 8:05etan. Bietan ez zegoen euskaraz erantzun zezakeenik. Lehenengoak 8tatik aurrera egongo zela esan dit eta bigarrenak, 8ak jota zirenez, 8:30etatik aurrera norbait egongo zela esan dit, baita Espainian gaudenez ez zutela zertan euskaraz erantzun behar. Legeak eskubide hori aitortzen didala esan diet bie eta eskubideak ezin direla orduka aitortu edo urratu. Bezeroei zuzendutako mezuak, bulegoetan ezarritako oharrak, askotan gaztelania hutsezkoak ezartzen dira.”

Aseguru etxeei dagokienez, euskarazko arreta jaso ahal denetan ere, baliabide guztiak erdaraz daudenez, kontratuak, mezuak, eskaintzak etab. gaztelaniaz edo frantsesez jasotzen dituzte herritarrek. Lege betebeharrak dituzten erakunde batzuek zenbaitean dokumentazioa euskaratzen dute herritarrek berriaz kexa egin eta hainbat eskaera egin ostean. Halere, normalean

txertatuta. Horrek berrikuntza teknologikoak euskaraz erabiltzeko oztopo nabarmena sortzen du, aplikazio edo sistemen zerbitzu batzuek zuzenean ez dutelako euskaraz hizkuntza erabilgarri bezala jasotzen.

752-2022 dosierra

“Apple-ek IOS bertsio berria aurkeztuko du (IOS 16).Apache, Dzongkha, Samoarra eta



Kutxazainean jarritako oharra, gaztelania hutsean.

Garraio zerbitzuak

Garraio zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek lege betebeharrak dituzten esparruetan ez dituzte betetzen zerbitzua euskaraz eskaintzeko neurriak.

Euskal Herrian hegazkin zein autobus bidaien zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa askok bezeroei eman beharreko jarraibideetan gaztelania, frantsesa edo ingelesa erabiltzen dituzte, baina ez euskara.

15-2022 dosierra

“Bilbotik Madrilera joateko Alsaren 14:00etako autobusa hartu nuen abenduaren 3 In. Soilik gaztelaniaz eman zituzten autobus barruan ahots mezu guztiak, baita gidariak berak emandakoak ere. Ez al dago ofiziala den euskara erabiltzeko borondaterik?”


889-2022 dosierra

“Zapato eguerdian, hilaren 22an, Lanzarotetik Bizkaiko aireporturako Air Europaren hegaldian euskaldun bidaiariok ez gintuzten batere aintzatetsi. Berba bat ere ez, ez ahoz ez idatziz edota pantailatan e.a. Euskaldunok arrotz. Lanzaroteranzko hegaldian ere berdin gertatu zen. Begirunerik?”

Hegaldien konpainia gehienek webguneetan ez dute euskara hautatzeko aukerarik eskaintzen, eta bezeroei bidalitako email eta mezuetan ere ez da euskarazko mezurik txertatzen.

779-2022 dosierra

“Iberia enpresaren webgunea ezin da euskaraz bistaratu, beraz, kudeaketa guztiak euskara ez den beste hizkuntza baten egitera behartuak gaude. Era berean, komunikazioak eta bidaia-txartelak erdaraz igortzen ditu.”



Hegaldi konpainien webgune eta oharretan, euskararik ez.

667-2022 dosierra

“Air Europaren webgunea ezin da euskaraz erabili. Espainiako estatua hautaturik gaztelania eta ingelesa azaltzen dira.”

973- 2022 dosierra

“E-posta bat jaso dut gaztelania hutsean zuen enpresatik, zuen komunikazioak euskaraz bidal ditzazuela eskatzen dizuet, euskaldunok halakoak gure hizkuntzan jasotzeko eskubidea dugulako.”

bezeroei euskarazko alerik ez dutela erantzun ohi diete, bai eta bezeroak harremana euskaraz hasita ere. Azkenik, webgune eta aplikazio gehienetan ere ez dute euskarazko aukerarik ematen.

468-2022 dosierra

“Zurich aseguru-etxearekin kontratatu dut auto-asegurua eta poliza euskaraz egon dadin propio eskatu badut ere, aipatu aseguru-etxeak ezezkoa eman dit. Gainera, bere webgunea (www.zurich.es edo, Ipar Euskal Herriarako, www.zurich.fr) erdaraz baino ez dago.”



Merkataritza kateetako hizkuntza-paisaia eta etxeetara bidalitzeko publizitatea erdara hutsean izaten da askotan.

Merktarritza-gune handiak, kateak

Oro har, kezkatzeko modukoa da merktarritza-gune handietan euskararen egoera. Izan ere, legeak hala behartzen duen kasuetan aurrerapauso batzuk izan diren arren, karteldegian adibidez, orokorrean, bezeroei arreta emateko egiten diren kontratazioetan edota zerbitzu telematiko zein bestelako informazioetan euskarak ez du inolako aitortzarik. Kateen jarrera oso argi geratu da, 40-2022 dosierrean kate handi horietako batek eman zuen erantzunean:

“80 herrialde ezberdinetan jardunez, oso enpresa-errealitate konplexuak baldintzatzen gaitu. Legezkotasunarekin dugun konpromisoa erabatekoa, eta alde horretatik, errespetuz, ez gatoz bat egoerari buruz egiten den balorazioarekin eta aipatutako araudiaren irismenarekin. Bestalde, azpimarratu nahi dugu baliabide mugatuko mundu batean bizi garela. Tamalez, hizkuntza arloan, gure ustez zentzu handiagoa dutenak lehenetsi beharrean gaude negozioaren ikuspegitik. Badakigu ez ditugula beti asetzen tartean dauden sentsibilitate guztiak. Hala ere, kontuan izan, gure kezken artean, euskara sustatzea dagoela (eskura ditugun baliabideek ahalbidetzen diguten neurrian)”.

Kezkatzekoa da Euskal Herriko zenbait merktarritza-gunek (negozio eta kate ezberdinak barnean dituzten espazioak), hizkuntzaren esparruan egin dituzten atzerapausoak. Izan ere, euskararen erabilera bermatzen duten espazioak gutxi dira. (Urbil merktarritza zentroak baino ez ditu kanpoko kartel eta ohar guztiak euskaraz).

530-2022

“Barakaldon kokatuta dagoen Max Center komertzial gunea berritzen ibili dira aurten. Goitik beherako aldaketak egin dituzte. Berriztearen ondorioz errotulazioa ere aldatu dute eta orain, errotulazio osoan hizkuntza indartua gaztelania da.”

630-2022

“Leioako Artea merkatal gunean, errotulazioak ia denak gaztelera hutsean daude. Bai informazio panel finkoak, hala nola berritze lanengatik ipinitako behin-behineko propaganda panelak ere”.

Kate komertzial gehienek bezeroei iragarkiak zein eskaintzak helarazterakoan, erdara erabiltzen dute. Sms edo emailtan, bezeroen asebetetzea neurtzeko inkestetan, zein zuzeneko arretan ere bezeroek euskara erabiltzeko dituzten zailtasunen ondorioz, merktarritza-gune handietan zuzenean erdarara jotzen dutela aipatzen dute herritarrek.

741-2022 dosierra

“Aldik etxeko postontzian (Basauri, Bizkaia) utzi digun publizitatea erdara hutsean dago.”

703-2022 dosierra

“Irungo Alcampoko bezero zerbitzura deitu dut eta erantzungailuak euskarazko aukera ematen zuen. Tonuak jo eta jo eta ez zuen inork deia hartzen. Gaztelerazko aukeran berriz, lehen tonuan erantzun didate.”

900-2022 dosierra

“Donostiako Garberako Primark berrian lan egiten duten langileetako askok ez dute euskaraz egiten. Gainera, bertan dauden kartelak ez daude behar bezala euskaraz idatzita.”

Webguneetan, bezeroek hainbat aldiz kexa sartu arren, ez dute euskara gaitzeko pausorik egiten, eta, beraz, online bidezko prozesu osoan beste hizkuntza batzuk erabili behar izaten dituzte.

666-2022 dosierra

“Euskaraz erosterik ez. Webgunea gaztelaniaz eta katalanez dago. Katalanez eskatuz gero ere, e-maila gaztelania hutsean heltzen da.”

847- 2022 dosierra

“Forum Sporten webgunea euskaraz erabili ezinik jarraitzen dugu, hau da, kontsultak eta erosketak erdaraz egin behar ditugu. Gainera, erosketak egin osteko mezu guztiak erdaraz baino ez ditu bidaltzen Forum Sportek, jarraian duzuen adibidean ikus dezakezuen bezala. Forum Sportek webgunea euskaraz jar dezan eta bidaltzen dizkigun mezu guztiak euskaraz ere idatzita egon daitezten eskatzen dut.”


Horiekin batera, bezeroei dendetan ematen zaizkien zerbitzuak gero eta telematizatuago daude, besteak beste, kutxazain automatikoak eta auto-ordainketa-rakoak, zalantzak argitzeko pantailak... Horietatik gutxi batzuek soilik dute euskaratuta zerbitzua. Hortaz, horietatik sortzen diren tiketak, mezuak, fakturak eta abar ere erdaraz izaten dira.

942-2022 dosierra

“Barakaldoko Max Centerren dagoen Burger king-eko autozerbitzu makinetan, hizkuntza aukeretan ez da euskara hautatzerik. Ez du aukerarik ematen.”

1033-2022 dosierra

“McDonalds jatetxeko kartelak eta informazio-pantaila gaztelaniaz baino ez daude.”



Euskaraz erosterik ez, hainbat kateren denda eta webgunetan.

Profesionalen zerbitzuak eta ostalaritza

Profesionalak eta zerbitzuak

Enpresa ezberdinek ematen dituzten zerbitzuetan ere euskararen presentzia falta eta euskarazko arreta bermatzeko zailtasunak helarazi dituzte Euskararen Telefonoaren erabiltzaileek. Batik bat, enpresa ezberdinek jarritako errotulazio, iragarki, bezeroei bidalitako publizitateetan euskara ez dela erabiltzen salatu da.



Enpresen zerbitzuen berri, gaztelania hutsean.


Bestalde, aurten enpresek fakturak egiteko programak jarri behar izan dituzte eta horietako batzuetan fakturak euskara hutsean ateratzeko aukerarik ez dagoela nabaritu izan dute enpresa ezberdinek. Horrek nola ez, bezeroei zerbitzuak euskaraz eskaintzen dizkieten enpresak ere baldintzatu ditu.



Ticket Bai fakturak egiteko programa, gaztelania hutsean.

783-2022 dosierra

Tiket bai erabiltzeko beharrezkoa dugun gestio programa bat ipini digute. Billin deitzen da (momentuan Kutxabank-ek promozionatzen du). Ez dago fakturak euskara hutsean egiteko aukerarik, ematen dituzten aukera ele bitan edo gazteleraz bakarrik dira. Gipuzkoako TicketBai-ren atarian Elkargi, Kutxabank eta beste hainbat erakunderen babesa du, gaztelera hutsean. Nik 3 edo 4 alditan deitu dut fakturak euskara hutsean nahi ditudala eskatzeko baina ez dute erantzunik ematen. Harrera ere gaztelera hutsean da.



Euskararen erabilera ezak arreta deitzen du ostalaritzan.

Ostalaritza

Ostalaritza ere herritarrek urtero nabarmentzen duten eremua da. Bezeroekiko zuzeneko arretan euskara erabiltzean jasotako erantzunen berri helarazi dute herritarrek. Horrekin batera, jatetxe, taberna eta ostalaritzako bestelako negozioetako hizkuntza-paisaian euskararen erabilera ezak arreta deitzen jarraitzen du. Izan ere, herri eta hiri batzuetan kanpainak egin diren arren, atzerriko hizkuntzak kontuan hartu izan dira eta euskarazko mezuak bazterrean utzi.

188-2022 dosierra
“Telefonoz deitu Donostiako Alderdi Zahar jatetxera mahai bat gordetzeko eta euskaraz egitean jarraian modu txarrean erantzun didate: “si me hablas euskera no te entiendo”. Moduak eta moduak daude gazteleraz egiteko eskatzeko.”

36-2022 dosierra

“Kafe Iruñan pote bat hartzera hurbildu, euskaraz eskatu eta zerbitzariaren erantzuna: “No sé euskera, soy de Murcia...Y no tengo por que aprender euskera...”. Ospa egin dugu. Bezero guztiek merezi dute errespetua, edozein hizkuntzetan mintzatzen direla ere, areago bertako hizkuntzan mintzatzen direnak. Ez dut imajinatzen zerbitzari hau ingeles hiztun bat horrela tratatzen. Zergatik bai euskaldun bat?”

387-2022 dosierra

“Bilboko “Amaren” jatetxeak karta gaztelaniaz eta ingelesez eskaintzen du. Noizko euskaraz, bertako hizkuntza ofizialean? Eskertuko genuke.”

504-2022

“Donostiako Loretxu tabernak hainbat hizkuntzatan eskaintzen du menua eta karta: gaztelania, ingelesa eta frantsesa. Ez al dute euskaldunik joatea nahi? Begirune gutxi.”

559-2022 dosierra

“Bazkari baten ondoren (ekainaren 22an), ordaintzera joan eta kontua eskatu nuenean erantzuna hauxe izan zen: “aquí como siempre en español”. Nere erantzuna: “ni euskalduna nauk eta euskeraz nahi diat”. Ondoren bere kide euskaldunari “cobrale” esan zion.”



Gaztelania hutsean aurki daitezke menu asko eta asko.

707-2022 dosierra

“Arroka Berri jatetxean telefonoz erreserba egin ondoren, SMS bidez bi mezu jaso ditut horren inguruan, biak ala biak gaztelera hutsean.”

714-2022 dosierra

“Gaur Bilbon bazkaldu behar dut, menuak begiratzen ibili naiz eta Cafe Iruñakoa gaztelaniaz eta ingelesez dutela ikusi dut. Uste nuen jatetxe honek euskara eta euskaldunekiko begirune gehiago izango zuela. Bistara menua eta karteldegia euskaraz ere jartzeko eskatu nahiko nioke Cafe Iruña enpresari, bertoko hizkuntza eta bezeroekiko begirunea erakusteko modu bikaina.”

Eragileak, mundu asoziatiboa, alderdi politikoak eta sindikatuak

Gizarte ekintzari lotutako eragileak izan arren, sarritan, eragile horien egunerokoan euskarak izaten duen espazio txikiagoa izaten da. Batzuek aldaketak egin izan dituzten arren, beraien jardueran zein egunerokoan euskararen erabilerak leku txikiagoa izan du. Eragile batzuen kasuan erantzukizun sozialarengatik, kolektibo zaurgarriekin egiten duten lanarengatik edo herritarren osasun edo ongizatearekin duten loturengatik are garrantzi handiagoa izan beharko lukete hizkuntza eskubideen aitortza eta bermeak. Kontuan hartu behar da, horietan guztietan, hizkuntza eskubideak ez ezik, herritarren ongizate eta berdintasuna ere ditugula jomuga.

21-2022 dosierra

ONCE erakundearen afiliatua naiz eta euskal herritarroi bidaltzen dizkiguten epostak, gutunak, eta abar espainolez baino ez daude. Euskaraz, ofiziala den hizkuntzan jaso nahi ditut horiek guztiak, nire eskubidea da.

2022an, alderdi politikoek frantsesa eta gaztelania erabili izan zituzten gehien euskararen lurralde osoan. Esaterako, sare sozialetako hizkuntzaren erabilera datuak deigarriak izaten dira, eta iragarkietan, esloganetan zein herritarrei postontzietara banatzen zaien informazioan euskarak toki gutxi izaten du. Sindikatu batzuek ere jardunaren gehiengoa erdaraz egiten dute, eta euskarazko informazioa zabaltzen denean, akats nabarmenak izaten dira.

“ 2022an, alderdi politikoek frantsesa eta gaztelania erabili izan zituzten gehien euskararen lurralde osoan , ,



Nafarroako Elikagai Bankuaren kartela, gaztelania hutsean.

593-2022 dosierra

“Frantziako Diputatuen aukeratzeko bozak iragan ekainean. Programa aurkezten duen eskuorria etxean, dena frantsesez.”

974-2022 dosierra

“Podemos Ahal Duguk postontzietan banatu duen hauteskunde propagandan euskara hutsaren hurrengoa da. Pasatu izan zait burutik neure botoa aldatzea hurrengo hauteskundeetarako, baina panorama ikusita, ezin...”

995-2022 dosierra

“ PSN-ren egoitzan kartel eta eslogan guztiak gaztelania hutsean daude.”

892-2022 dosierra

“EH Bilduren TikTok kontuan euskara hutsaren hurrengoa da. Bideorik gehien-gehien-gehienak erdara hutsean daude. Kontuan izanik TikTokeko erabiltzaile gehien eta sutsuen adinak zeintzuk diren, are larriagoa da, larriagoa izan baliteke.”

312-2022

“EAJ-k herritar danon etxietara zabaldu dauen apirileko aldizkaridxe jaso dot eta gazteleraz dago, izenburu eta nabarmendutako esaldi batzuk izan ezik.”



Alderdi politikoek ia ez darabilte euskararik propagandan.



HIZKUNTZ
ESKUBIDEEN
BEHATOKIA